



Idiazabal
2030 AGENDA

IDIAZABAL 2030 AGENDA
PLAN ESTRATEGIKO
JASANGARRIA

HERRI DIAGNOSTIKOA
2022ko urria

AURKIBIDEA


1. SARRERA.....	3
1.1. Aurrekariak.....	3
1.2. Tokiko Agenda 2030en metodologia orokorra.....	5
1.3. Prozesuaren helburuak.....	6
1.4. Diagnostikoaren egitura.....	6
2. HERRI DIAGNOSTIKOA.....	8
2.1. Gizarte eta Ekonomia arloak.....	8
2.2. Ingurumenaren eta klimaren arloa.....	34
2.3. Jasangarritasunaren aldeko gobernantzaren arloa.....	56

1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK

2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak

2015eko irailaren 25ean Nazio Batzuen Batzar Nagusiak “Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako¹ 2030 Agenda” izeneko dokumentua onartu zuen. Era honetan, mundu mailan garapen eredu iraunkor baten alde lan egiteko konpromisoa hartu zuten herrialde ezberdinek eta 2030 urterako Garapen Iraunkorraren 17 Helburuak (hemendik aurrera GIH izendatua) betetzeko bide-orria onartu zuten. Helburu horien bidez Nazio Batuen Erakundeak “inor atzean geratzen ez dela” bermatu nahi du. 17 helburuak honako 5 esferetan biltzen dira:



MUNDU MAILAKO 2030 AGENDA

ESFERA GARRANTZITSUAK	GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK
Pertsonak	1. GIH: Pobrezia desagerraraztea 2. GIH: Gosea desagerraraztea/Elikadura 3. GIH: Bizimodu osasuntsua 4. GIH: Hezkuntza inklusiboa 5. GIH: Genero-berdintasuna
Planeta	6. GIH: Ura eta saneamendua 7. GIH: Energia irisgarria eta ez kutsagarria 8. GIH: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 9. GIH: Industria, berrikuntza eta azpiegitura 10. GIH: Desberdintasunak murriztea 11. GIH: Hiri eta komunitate jasangarriak
Oparotasuna	12. GIH: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak 13. GIH: Klimaren aldeko ekintza 14. GIH: Itsaspeko bizitza 15. GIH: Lehorreko ekosistemetako bizitza
Bakea	16. GIH: Bakea, justizia eta instituzio sendoak
Lankidetzak	17. GIH: Aliantzak/Garapenerako lankidetzak

¹ Garapen iraunkorra (“garapen jasangarria” bezala erabilia): herritarren ongizatea, naturaren zaintza eta garapen ekonomikoaren arteko oreka bilatzen duen garapen-eredua da.

Munduan bizi garen biztanleen erdia baino gehiago herri edo hirietan bizi gara eta, adituen arabera, 2050 urterako munduko biztanleen 2/3tik gora hirietan biziko dela aurreikusten da. Hori dela eta, garapen iraunkorraren aldeko borroka hirietan irabazi edo galtzen dela adierazi izan dute adituek. Izan ere, herriak eta hiriak bertako biztanleen eguneroko bizitza garatzen den espazioa izateaz gain, herritarren bizi kalitateari, osasunari eta ingurumenari inpaktuak eragiten dizkion eremuak dira.

Aurretik esandakoa kontuan hartuz, 2017 urtean UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) Garapen Iraunkorraren Helburuak maila globaletik hurbilenekora egokitzeko gida bat argitaratu zuen. Orduz geroztik, maila ezberdinetako gobernu eta eragile askok (estatu mailakoak, erkidego mailakoak, udalak, garapen iraunkorraren alde sortutako enpresen aliantzak, ...) 2030 Agenda globala euren errealitatera egokitzeko aurrerapausoak eman dituzte, tokian tokiko Agendak onartuz.

- Euskaraz: https://www.youtube.com/watch?v=IT9rJkK6WiU&feature=emb_logo
- Gaztelerez: https://www.youtube.com/watch?v=gQBJfYIDovA&feature=emb_logo

Euskadi mailan 2030 Agenda nola ezartzen ari da?

Lurraldearen garapen iraunkorraren aldeko lehen estrategia 2002 urtean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, ondoren, 4-5 urteko iraupena duten ingurumen-esparru programen bidez aurrera eramanez izan dena. Hala eta guztiz ere, 2002 urtean onartutako estrategiak, batez ere, ingurumena zuten ardatz eta ez horrenbeste garapen iraunkorraren alderdi soziala eta ekonomikoa. Hori dela eta, 2015 urtean Nazio Batuen Erakundeak onartutako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak sortutako aukera baliatuz, 2018 urtean Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak “Basque Country 2030 Agenda” estrategia onartu zuen, garapen iraunkorraren alde indarrak batzea eta gure lurraldearen konpromisoa mundu-mailan erakustea bilatzen duena. Bertan jasotzen da Eusko Jaurlaritza bat datorrela Nazio Batuen Erakundeak munduaz duen ikuspegiarekin: “Pertsonengan zentratutako mundu bat, planetaren babesarekin eta bizikidetzak baketsuarekin konprometitutakoa, aliantza- edo itun-eredu baten bitartez oparotasuna lortzeko gaitasuna duena.”.

Lurralde mailatik udalerritik mailara jaitsiz, EAEko zenbait udal hasiak dira 2030 Agenda euren errealitatera egokitzeko lanketa estrategikoa burutzen. Aipatu lanketa errazteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak baliabide ezberdinak jartzen ditu udalen esku; hala nola, 2030 Agenda tokiko mailan ezartzeko gida, interesa duten udalei zuzendutako eskualde mailako gogoeta egiteko lan-taldeak osatzea, eta abar. Udalez gain, bestelako eragileek ere zeresan handia dute Garapen Iraunkorrerako Helburuen ezarpenean eta horien artean aipa daitezke, esaterako, unibertsitateak, enpresak eta elkarteak. Eta, nola ez, herritarrek ere bai.


Idiazabalgo Udalaren ibilbidea

Idiazabalgo Udalak 2006ean onartu zuen herriko garapen iraunkorraren aldeko I. Ekintza-plana, Goierriko Agenda 21-aren barnean. Orduz geroztik, ekintza ezberdinak eramanez dituzte aurrera arlo ezberdinetan (natura-ondarearen lehengoratzeko eta kontserbazioa, hondakinen gaikako bilketa, mugikortasun mahaia, Eskolako Agenda 21 hezkuntza-programa herriko ikastetxeetan martxan jartzea, ...). 2006 urtean onartutako plangintza haren indarraldia agortuta, 2022 urtean, Udalak mundu mailan onartutako 2030 Agenda Idiazabalgo errealitatera egokitzeko gogoeta prozesua abiarazi du, bere 2030 Agenda izateko erabakia hartuz.

1.2. TOKIKO AGENDA 2030EN METODOLOGIA OROKORRA


Idiazabalgo Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko prozesuaren urratsak finkatzeko garaian, bi gida erabili dira oinarritzat eta hauetan zehaztutako irizpideak jarraitu dira:

EAEko Udalerrietan Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planak Berrikusteko Gida Metodologikoa (Ihobe)



Irudia: EAEko Udalerrietan Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planak Berrikusteko Gida Metodologikoa (Ihobe)

Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa



Irudia: Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa (Ihobe)

Planaren osaketa prozesua, Nazio Batuen Erakundeak adostutako 2030 Agendari eta Garapen Jasangarrirako Helburuei egokitzen ari zaio, lortzen dugun emaitza iraunkortasunaren esparruan Euskal Herriko zein Europako udalerrri aurreratuenen pare ipintzeko.

Lehen urratsa – Herri diagnostikoa

Proiektuaren lehen fasean, herriaren diagnostikoa egiteko gogoeta prozesu bat abiatu da globalizazioak dakartzan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronken aurrean, herriaren egoera aztertzeke eta nora iritsi nahi dugun jakiteko. Azterketa hau egiteko, iturri ezberdinetatik jasotako datu eta informazioa objektiboa jasotzeaz gain (Udala, Udalmap, Eustat, Behagi,...) ezinbestekoa izan da herritarren eta herriko eragileen partaidetza.

Honela, herriko ikuspegi eta pertzepzio ezberdinak jaso, eta diagnostikoa osatzeko, Idiazabalgo eragile eta herritarren sektore ezberdinekin elkarrizketa saioak antolatu ditu Udalak iraila eta urrian zehar: **Ongizatea, Adinekoak, Merkatariak, Industria, Landa-Natura-Ingurumena, Kirola-Kultura-Euskara, Hezkuntza eta Udal teknikariak.**

Behin, lehen azterketa lana eginda, helburu jasagarriak lortze aldera, idiazabalarrantzako ibilbide-orri komun bat eskaini nahi da, herriko eragile guztien adostasuna duena.

Honela, eskuartean dugun **Idiazabalgo egoeraren diagnostikoa egin ostean, 2030 urterako Plan Estrategiko Jasagarria diseinatzeko faseari ekingo dio Udalak.** Plan horretan jasota geratuko dira udalerri mailan landuko diren Garapen Jasagarriko Helburuak, horien alde lan egiteko hartutako konpromisoak eta programatutako ekintzak.

1.3. PROZESUAREN HELBURUAK

Idiazabalgo 2030 Agenda honen osaketa prozesuaren helburu orokorra udal barne parte-hartzearekin eta herritarren parte-hartzearekin Udal gobernuko legegintzaldi planak ezezik udalerriko eragile estrategikoen jardura eta ekintzek GIH-ei egiten dieten ekarpena jaso eta udal-kudeaketan helburu berriak barneratzeko hausnarketa bultzatzea da, parte-hartzearen, elkarlanaren eta adostasunaren bidetik gaurko eta biharko beharrei modu eraginkorrean erantzungo dien proiektuak definitzea eta hauen gauzatze-mailaren jarraipena egitea.

Horretarako honako helburu zehatzak erdietsi beharko ditugu:

- Urte, legealdi, zein ideologiengainetik dauden erronkei modu antolatu eta eraginkor batean erantzuteko iraunkortasunerako eta GJH-en aldeko udal-kudeaketarako tresnak eguneratzea.
- Udal barneko eta kanpoko parte-hartzea sistematizatzea.
- Udalak duen informazio guztia gardentasunez zabaltzea eta komunikazio-bide berriak aztertu eta erabiltzea.
- Udalaren iraunkortasun egoeraren inguruko datuak jaso eta interpretatzea.
- Prozesuan zehar genero ikuspegia eta giza-eskubideak zeharkakotasunez erabiltzea.

1.4. HERRI DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

Herri diagnostikoan aztertu diren eremu edo arlo bakoitzean Garapen Jasagarriko Helburuekiko egoera eta lehentasuneko jardura edo lan-ildoak bildu dira Ondorengo atalean arlo bakoitzari loturiko GJHak aztertu dira fitxetan.

DIAGNOSTIKO ARLOAK	GJH
GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOAK	1, 2, 3, 4, 5, 8, 10 eta 18
INGURUMENAREN ETA KLIMAREN ARLOA	7, 9, 11, 12, 13, 14 eta 15
JASANGARRITASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZAREN ARLOA	16, 17



Aztertuko den GJH bakoitza fitxa baten barnean egituratuko da. Hau da fitxa bakoitzaren egitura:

GJH LOGOA HELBURUAREN AZALPENA

AZTERGAIK

Helburuaren baitan aztertzen diren gaiak

UDAL PLANGINTZA

Helburuan aztertzen diren gaiari loturiko plangintza.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Helburuan aztertzen diren gaiari loturiko udal jarduera (azken 3 urteetako).

HERRIAREN EGOERA

Helburuarekiko herriaren ekarpena eta adierazleen irakurketa.

HERRITARREN EKARPENAK

Elkarrizketetan herriko eragile ezberdinetatik jasotako ekarpenak helburuarekiko.

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunera begira lehenetsi diren erronka edo lan-ildoak.

2. HERRI DIAGNOSTIKOA

2.1. GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOAK



1. GJH honetan kolektibo jakin batzuen kalteberatasunari aurre egin eta gizarte babes eta oinarrizko beharrak asetzeko baliabideak eskaintzea eta bermatzea da helburu nagusia, baita herritarren eta herriaren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea ere.

AZTERGAIK

- ❖ Herritarren egoera sozio-ekonomikoa.
- ❖ Egoera zaurgarrian dauden pertsonentzako eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Idiazabalgo udal Gizarte Zerbitzuak saila Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikorako sarbide nagusia da. Helburu nagusia da herritar guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte ongizatea bultzatzea. Horretarako, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa betetzen du hainbat prestazio emanda eta pertsona eta harreman izaera duten zerbitzuak eskaintzen ditu.

Sailak herritarrei laguntzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikora sartu ahal izan daitezen. Hori horrela, Idiazabalgo Gizarte Zerbitzuak herriko pertsona eta kolektibo guztiei bideratzen zaizkie eta lantzen duten bi arlo nagusietatik batean egoerak baloratu, esku-hartzeak proposatu eta Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta prestazioak aktibatzen ditu, egoeraren ezaugarriak eta egindako balorazioa kontuan hartuta.

Bi multzo nagusietan laburbiltzen da eskaintzen den zerbitzu hau:

Gizarteratzea sustatzeko zerbitzu multzoan:

- Gizarte bazterkeria egoeren balorazioa
- Desgaitasunaren balorazioa
- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea errazteko diru laguntzak
- Behin-behineko egonaldiak mendekotasun egoera duten adinekoentzat edo desgaituentzat
- Behin-behineko egoitzarako etxebizitzak
- Desgaituak: aparkatzeko txartela

- Laguntza teknikoak eta laguntza ekonomikoa eskatzea
- Egoitza zerbitzuak desgaituentzat
- Gizarte bazterkerian eta marjinazio egoeran bizi direnentzako egoitza

Oinarrizko gastuak ordaintzea sustatzeko zerbitzu multzoan:

- Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL)
- Udal laguntza ekonomikoko bereziak
- Kotizatu gabekoen pentsioa
- Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioak
- Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)
- Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE)
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE)

HERRIAREN EGOERA

Herritarren ekonomia baliabideei begiratzuz gero eta zehazki errenta pertsonalari dagokionean gainontzeko lurraldeekiko egoera ekonomikoa hobean kokatzen dela ikusten da, Gipuzkoako batz-bestearekin alderatuz 4.500 €-ko aldea egonik.

Errenta pertsonal osoa, 2019 (€)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Errenta	27.233 €	23.756 €	22.601 €

Iturria: Udalmap

Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzaren kopurua begiratzuz badugu, Idiazabalgo tasa beste lurraldeekiko baina baxuagoa dela ikusiko dugu. Hala ere bilakaerari begiratzuz joera gorakorra dela esan daiteke, 2008an 2,68-ko tasa baitzen. Gizarte zerbitzuen arabera, Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten familia onuradunak 17 dira gaur egun.

Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzaren kopurua, 2021 (biztanleen %)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
GLL	7,43	11,53	13,29

Iturria: Udalmap

Diru-sarreraren berme-errentaren onuradunei begiratzuz ere beste lurraldeekiko dagoen aldea nabarmena da. Bilakaera gorabeheratsua izan da, azken 15 urteetan daturik altuena 2014an jaso da, 10,4ko tasarekin eta baxuena 2009an.

Diru-sarreraren berme-errentaren onuradunak, 2021 (biztanleen %)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
DBE	4,82	17,08	23,81

Iturria: Udalmap

HERRITARREN EKARPENAK

- Idiazabaldarren egoera ekonomikoa ona edo oso ona da. Bertako **langabezia tasaren datuak oso onak dira.**
- Egoera txarrean dauden familien gehiengoa kanpotik datorrena da eta hauei lehengaiak (janaria, arropa,..) errazte bazaizkie ere, hauentzako **lanerako bidea egitea ez da erraza**, arazo burokratikoak (legeztatu gabeko pertsonak dira askotan eta ez dute paperik). Estranjeria legea aldatzekoa da eta honek dirudienez erraztuko du paperik gabekoen kontratazioa. Ostalaritzan eta zaintzan lan eskari handia dago eta ezin da bertakoekin asetu.
- **Prestazio ekonomikoak** jasotzen dituzten familiek (RGI,...) ere ez dute lanerako bidea egiten. Hauetako batzuk atzetik lanak egiten dituzte RGI laguntza kobratuz. Honen gaineko kontrol handiagoa egon beharko litzateke.

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Jangelarako sarrera edo erosketa saskia herritar orori bermatzea.
- Pobrezia egoerak lagundu eta lanerako bideak erraztea.
- Etorkinei herrian harrera on bat egitea eta lanerako eta etxebizitzarako eskubideak bermatzea.



2. GHJK bilatzen dituen helmugak hauek dira: guztiontzat elikagai nahikoak, osasuntsuak eta seguruak daudela bermatzea, herritaren elikadura hobetzea eta elikagaiak eskala txikian eta tokiko ekoizpena sustatzea. Baita nekazaritza eta abeltzaintza produktibitatea hobetzea, jarduera horiek jasangarriagoak izan daitezen eta ekimen ekologikoetarantz bultzatuz

AZTERGAIK

- ❖ Landa eremuen garapena
- ❖ Ekoizpen ekologikoa.
- ❖ Bertako produktuen kontsumoaren sustapena.
- ❖ Elikadura osasuntsua, elikagarria.

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Eskualde mailan, Goierriin, GOIMEN (Goierriko Landa Garapeneko Elkarte) da landa eremuen garapenaren alde lan egiten duen elkartea, eskualdeko udal eta eskualdeko nekazaritza-elkarteek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak jorratzen du arlo hau.

Udal mailan lan hauek garatzeko Landa Garapeneko Teknikari bat du lanaldi erdira (lanaldiaren beste erdia ingurumen gaien lanketarako du)

HERRIAREN EGOERA

Idiazabalgo biztanleetatik %28,61 urbanizaezintzat jotako lurzoruan bizi da, zeinak udalerriko lurraldearen eremu osoaren %97,70 hartzen duen.

Idiazabalgo izaera landatarra ikusten da nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordinaren ehuneko beste lurraldeekiko baino altuagoa dela ikusita.

Nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordina (%)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
GLL	1,22	0,65	0,88

Iturria: Udalmap

Guztira 271 ustialeku daude Idiazabalen (Nekazaritza erroldako datua). Hauetatik ordea gehiengoa ustialeku txikiak dira, autokontsumo edo aisialdiko jarduera dutenak (adibidez behor bat edukitzeko, etxerako oiloak edo oilaskoak hazteko,...)

Elikagai produktuen ekoizle gutxi daude herrian. Urtean zehar hiru azoka antolatu ohi dira: maiatzean Gazta azoka, Euskal Herriko gazta txapelketa eta Baserritarren egunak urrian. Ekoizpen ekologikoa egiten duen ustiategi bakarra dago Idiazabalen eta honek 2 jarduera nagusi ditu: Frutarbolak (1.05ha) eta Larreak (7.9ha).

Azoka hauetara beti gonbidatzen dira herriko hiru gaztagileak eta sagarrak ekoizten dituen herriko baserritar bat. Herri bazkarirako txekorra erosten zaio herriko ganaduzale bati.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRITARREN EKARPENAK

- **Esne ekoizleek** ordea arazo larriak dituzte **pentsu eta energia kosteen igoeragatik**.
- **Kontsumo talde bat bada Idiazabalen eta astelehen iluntzetan banatzen ditu ekoizkinak**. Herriko fruterian saltze diren produktuekiko bereizten da guztiz, hemen ez bait dira bertako produktuak saltzen, beraz zentzu horretan ez dio lehiarik egiten.
- **Baratzak** sustatzea beharrezkoa ikusten da eta Haurreskola ondoko eremuan baratzak eraikitzeke ekimena aurreikusten da Udaletik.
- **Ostalaritzan bertako produktuen kontsumoa bultzatu beharko litzateke**. Bertako gazta kontsumitzen bada ere barazkiak kanpotik ekartzen dira.
- **Herritarren elikadura ohiturak onak direla ematen badu ere zalantza sortzen da eskoletan ematen den irizpideari begiratzean**, hamaiketakora astean behin fruta ematea gomendatzen baita, alderantziz izan beharko zena. Haurrak saritzean ere beti goxoki poltsan pentsatzen da.
- **Eskolako jangelan eta eguneko zentroan kanpoko enpresak** ekarritako janariaren kalitatea zalantzan jartzen da eta horren aurrean bertan sukaldea jartzeko ekimena bultzatzen saiatu izan dira, ondo legoke aukeran.
- **Bertako produktuen kontsumoa (km 0) bultzatzeko hainbat klausula ezarri beharko** lirateke Udalarenak diren Frontoiko eta Pilarreneako sukaldeetan eta pribatuetan ere bertako produktuen kontsumoa bultzatu beharko litzateke.
- Gazteentzako antolatu izan dira **sukaldaritza tailerrak**.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatu dira:

- Landa lurren zaintza, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetuz: landa bideak, internet, argindar hornidura, garraio publikoa, saneamendua,...
- Elikadura burujabetzaren bidean pausuak eman herrian baratzak eskaintzeko lurra prestatuz.
- Elikadura osasungarriak sustatzea herritar guztien artean, bertako produktuen kontsumotik.



3. GJH-k pertsona guztien osasunean eta ongizatean eragin nahi du, horretarako zerbitzu egokiak eskainiz, bizi-ohitura eta bizi-estilo osasungarriak sustatuz eta osasunean inpaktua izan dezaketen eraginak kontrolatuz. Udalerrian behar desberdinak daude eta horren araberako edo egokitutako eskaintza ematea da helburua.

AZTERGAIK

- ❖ Gaixotasunak eta hauen prebentzio eta hobekuntzarako zerbitzu eta ekipamenduak.
- ❖ Adineko eta menpekoen zaintza.
- ❖ Bizi-estilo eta -ohitura osasuntsuak: osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa, jarduera fisikoa eta kirola, mugikortasun ohiturak.

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Idiazabalgo udal Gizarte Zerbitzuak saila Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikorako sarbide nagusia da. Helburu nagusia da herritar guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte ongizatea bultzatzea. Horretarako, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa betetzen du hainbat prestazio emanda eta pertsona eta harreman izaera duten zerbitzuak eskaintzen ditu.

Sailak herritarrei laguntzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikora sartu ahal izan daitezen. Hori horrela, Idiazabalgo Gizarte Zerbitzuak herriko pertsona eta kolektibo guztiei bideratzen zaizkie. Gizarteratzeko programak garatzeaz gain, lan arloetako batean prebentzio programak garatzen dituzte: 60 urtetik gorako pertsonen autonomia eta adingabeen babesa haien familia eta gizarte guneean, aktibatu daitezkeen zerbitzu eta prestazioak hauek izanik:

- Mendekotasunaren Balorazio Baremoa (MBB)
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua
- Telelaguntza zerbitzua
- Desgaitasunaren balorazioa
- Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)
- Laguntza teknikoak eta laguntza ekonomikoa eskatzea
- Eguneko zentroa mendekotasun egoeran dauden adinekoentzat
- Kotizatu gabekoen pentsioa
- Desgaituak: aparkatzeko txartela
- Behin-behineko egonaldiak mendekotasuna duten adinekoentzat edo desgaituentzat

-
- Alojamentu babestuak adinekoentzat
 - Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE)
 - Egoitza zerbitzuak desgaituentzat
 - Adinekoentzako egoitza eskaerak

Gizarte zerbitzuetatik era berean **Haurren babesa sustatzeko lanak** bideratzen dira, honako prestazioak eskainiz:

- Haurren babesgabetasun egoerak baloratzea
- Esku-hartze sozio-educatiboa eta psikosozialaren alorrekoa zailtasunak dituzten adingabeak dituzten familientzat

Osasun ekipamendu eta zerbitzuari dagokionean Idiazabalen kontsultategia (anbulategia) astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara irekita egoten da.

Idiazabalgo Udalak parte hartu du **Idiazabalgo zahartze aktibo eta osasungarriaren Akzio-Planean**. Plan horretan, beharra ikusi da pertsona helduetan aktibitate fisikoa sustatzeko. Horrela, Ttipi-Ttapa Ibilbide Osasungarriak izeneko proiektuaren barnean “Izalbira” programa jarri da abian. Horrez gain “Mugiment” proiektua ere martxan jarri da Idiazabalen, “MugiMugi” izenarekin. Honen barruan, sedentarismoari aurre egiteko hainbat zerbitzu jarri dira abian: orientazio zerbitzuaren baitan, osasun etxearekin koordinatuz, medikuak kirolera egiten dituen deribazioak; ikastaro ezberdinak (emakumeak lilatoirako entrenatu....) edo zerbitzu bereziak (gimnasioko makinak erabiltzen irakastea).

Bestalde **Kirol sailean** honako zerbitzuak ere eskaintzen dira:

- Kirol zerbitzuen jarraipena egitea: Kirol ikastaroak, Igarondo Igerilekuak, Gimnasioa 47.
- Kirol instalazioen erreserbak egitea eta erabilerak koordinatzea
- Diru-laguntzak kudeatzea: Idiazabalen kirol jarduerak antolatzeako diru-laguntzak

Kirol ikastaro eskaintzari dagokionean aukera zabala dago, besteak beste: pilates, zumba, hipopresiboak, spinning, krossfit, 3. adinekoen soinketa, yoga, gaztefit, TRX ...

Gainera, Kirol instalazio anitzak ditu Idiazabalek: Igarondo pilotalekua, Igarondoko igerilekua, Arizkorreta futbol zelaia, Gimnasio 47, Zelaako kiroldegia, Udaletxe zaharra, Guraso elkartearen aretoa, skate parkea, Jose Kruz Aranburu bolatokia, Pump track bizikleta pista eta Soinketa makinak Pilarreneko lorategian.

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Bankeetxei adineko pertsonen lehentasunezko eta zuzeneko arreta emateko eskaera luzatu zaie.
- Eguneko zentroko lizitazio berria egin eta figurak eta funtzioak birpentsatu dira.
- Idiazabal Lagunkoia izateko programa abian jarri da: Herriko arkitekturaren egoeraren azterketa orokorra egin, arkitektura-hesiak ezabatu eta paseo-lekuetan deskantsurako guneak bultzatuz, Jubilatuen elkartearen eta eskolaren artean ekimen intergenerazionalak egin dira.

- Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako kultur ekitaldietan lehenetsuneko lekua gordetzea.
- Zigorrak betetzeko Komunitatearen aldeko lanak egiteko hitzarmena sinatu da.
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako hobariak ezarri dira kirol eta turismo tasetan.
- Ezgaitasuna duten adin txikikoentzako dirulaguntza lerro berria ireki da.
- Aniztasuna eta bizikidetzak sustatzeko ekintzak gauzatu dira: Aniztasuna ikusgarri egiteko ekintzen antolaketa; desgaitasuneko dirulaguntzak aztertu dira eskolarekin elkarlanean,...

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Mendekotasun mailaren bat duten udalerriko pertsonak 3,36 izan dira 2019an (Iturria: BEHAGI)

Familia-inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren (FIZPE) pertsona titularren zenbatekoa azken urteetan ia erdira jaitsi da, 2015ean 42 izatetik 2021ean 24 izatera. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren (LPPE) pertsona titularren zenbatekoak aldiz gora egin du 15etik (2015) 26ra (2021), tasa hau gorabeheratsua izaten ari bada ere (Iturria: BEHAGI).

Adineko pertsonentzako egoitzetan dagoen plaza kopurua ‰ biztanleko 9,43koa da eta bilakaerari so egiten badiogu, beherakorra da, esaterako 2018an tasa hau 22,43koa izan bait zen.

Adineko pertsonentzako egoitzetan dagoen plaza kopurua (‰ biztanleko eta 65 urtetik gorako biztanleen artean)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Egoitzen plazak	9,43	36,83	41,95

Iturria: Udalmap

HERRITARREN EKARPENAK

- Idiazabalgo familietan kostatzen da hainbat **zaintza zerbitzu** onartzea baina hauen erabilera areagotzen ari da. Orain arte etxeak etxean zaindu nahi izan dituzte.
- **Bakardade egoera asko ez dira egongo Idiazabalen**, bertan familiaren babesa handia da eta gizarte kohesioa ere, herri txikia den heinean. **Joera ordea egoera hori okertzea izan daiteke giza kohesioa/elkartzea lantzen ez bada.**
- Kirol ekimenetik **emakume eta adinekoen kirola bultzatzeko** lanetan dabilta. Zailtasunak dituzte antolatu diren partehartzaileak lortzeko (Gazte-Fit atera da soilik).
- Enpresa barnean langileekiko harremanak aztertzen dabilta (Jaso) eta Agenda 2030eko helburuak ere aurkeztu zitzaizkien. **Langileen osasun eta ongizateak eta langileen partaidetza eta beraien arteko harreman egokiek gero eta garrantzi handiago du enpresetan.** Beraiekin arlo psikosoziala lantzen dabilta Jason. Honetarako beharrezkoa da zuzendaritzak formazioa jasotzea eta langileei eskaintzea.
- **Orientazio zerbitzua** eskaintzen da medikuarenetik eta orohar behar duenari kirolera bideratzen zaio.

-
- **Kirola bultzatzen** da “Izal-bira” bezalako ekimenekin eta kirol elkarteek ere lan handia egiten dute horretan.
 - **Pandemia garaia asko kaltetu ditu adinekoak eta beraien autonomian eta ongizatean atzerapen bat ikusten da.** Orain, helburua pixkanaka aurreko egoera berreskuratzea da.
 - Pandemiaren ondorioz herritarra lehenago doa medikuarengana eta horrek agian zerbitzua lehen baino gehiago saturatzen du eta **atzerapenak sarriago ematen dira beraien agendetan.**
 - Pandemiak berez ez ditu antsietate egoerak areagotu, aurreko egoera mantentzen da. Hori bai, **osasun mentaleko zerbitzua lehen eta orain saturatuta** dago eta litekeena da beharrean dauden herritarrek osasun pribatuko zerbitzuetara jotzea.
 - Herritarrek orohar **osasun ohitura hobeak** dituzte gaur egun, elikadura gehiago zaintzen da eta kirolzaletasuna nabarmen igo da.
 - Elikaduran ordea kontraesanak ere ematen dira. Haurrei sarriegi ematen zaizkie gozokiak eta hamaiketako gehiago zaindu beharko litzateke.
 - Gazteen artean oraindik **alkohol eta drogen gaiak kezkatzen du** eta osasun ohituren gaineko sentsibilizazio ekimenekin jarraitzea garrantzitsua litzateke.
 - **Gailu digitalen erabilerak haur eta gazteen (herritar ororen) konzentratzeko gaitasuna murriztu da.** Sare sozialen estimulua erakargarria da eta luzean irakurtzeak aspertzeko gaitu.
 - **Osasun eta ongizate gaietan garrantzitsua da lan komunitarioa,** eragile ezberdinen arteko elkarlana, saretzea, anbulategiko medikuaren esanetan. Udalean ere gai hauek lantzen direnean beraiekin kontatzea eskertuko lukete.
 - Idiazabalen **mediku eta erdien lanarekin zerbitzu minimoa betetzen da,** nahikoa da.
 - **Pandemiak hankaz gora jarri du osasun zerbitzuko administrazioa:** txandak hartzerakoan, errezetak programatzerakoan,... Adinekoek guztia pairatzen dute eta farmazian egoera honen aurrean laguntzen saiatzen dira, beraien lana ez den arren: egin gabe dauden errezeten berri ematea, erizainari abisua bidaltzea,...

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Arlo ezberdinetan bizi ohitura osasungarriak bultzatzeko kanpainak sustatzen jarraitu: elikadura, kirola, osasun mentala,...
- Udalak ongizateko zerbitzuan dituen baliabideak herritarrei ezagutarazi eta beharretara egokitzea, erabiltzaileak entzunez. Adinekoen egoera soziosanitarioa aztertu eta egoera hauei erantzuteko baliabide nahikoa eskaini. Adinekoei kalitateko zaintza eskaintzeko baliabideak jartzea.
- Kirol inklusiboa bultzatzea, herritar ororentzat irisgarria.
- Herriko arlo ezberdinetara iristeko aukera ematea osasun zerbitzuei eta gizartearen partehartzea sustatzea osasun zerbitzuen antolamenduan. Elkarlanerako mahai edo guneak sortzea.
- Natur eremuaren zaintza herritarren osasuna zaintzeko. Herritarren naturarekiko harremana estutzea.



4. GJH honetan pertsona guztiei doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa den hezkuntza aukerak bermatzea da helburu nagusia.

AZTERGAIK

- ❖ Udalerrian dagoen hezkuntza eskaintza orokorra eta mailaren araberako eskaintza
- ❖ Herritarren hezkuntza-maila
- ❖ Hezkuntza sustatzeko udal baliabide eta zerbitzuak

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udalaren eskumeneko zerbitzuak hauek dira:

- Idiazabalgo Musika Eskola zerbitzua kudeatzea
- Ikasgela zerbitzua kudeatzea
- Hezkuntza arautuko eta udaleko hezkuntza ez-arautuko (*) zerbitzuen arteko elkarlana sustatzea (*) Hezkuntza ez-arautuko zerbitzuak Gazteria Arloak eskaintzen ditu (Haur Zerbitzua eta Nerabe Zerbitzua)

Beste erakunde publikoekin duen elkarlana:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila
- Aita Iparragirre Haurreskola eta Haurreskolen Partzuergoa
- Aita Iparragirre Herri Eskola
- Beasain Institutu Publikoa.

HERRIAREN EGOERA

Idiazabalen 2 hezkuntza-arautuko hezkuntza-zentro daude, biak publikoak: Aita Iparragirre Haurreskola eta Aita Iparragirre Herri Eskola.

Araubide Bereziko Irakaskuntzako Musika Eskola ere badago.

365 egunez irekita dagoen Ikasgela Zerbitzua ere eskaintzen da (hezkuntza instalakuntzak Idiazabalen)

Herrian bertan 0-11 urte bitarteko hezkuntza eskaintza dago: Haur Hezkuntza (0-2) Haurreskolan; eta Haur Hezkuntza (2-5) eta Lehen Hezkuntza (6-11) Herri Eskolan.

Ondoren, bertako ikasleak Beasain Institutu Publikora joan ohi dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera.

DBHO Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoa egiteko aukerak badaude Goierri bertan: Lanbide Heziketa eta Unibertsitate-ikasketak Goierri Eskolan (Ordizia); eta Batxilergoa Beasain Institutu Publikoan (Beasain)

Ikasle-kopuruak Idiazabalen:

Haurreskolan (0-2 urte). Haur Hezkuntza - HH	16
Herri Eskolan (2-5 urte). Haur Hezkuntza - HH	106
Herri Eskolan (6-11 urte). Lehen Hezkuntza – LH	176
Musika Eskolan (4-99 urte). Araubide Bereziko Irakaskuntza	71

Iturria: Idiazabalgo Udala

Unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten 10 urteko edo gehiagoko biztanleen ehunekoa beste lurraldeekiko baxuagoa da, baina bilakaera gorakorra du 2010etik (%18,76).

Unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten 10 urteko edo gehiagoko biztanleak, 2021 (%)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Unibertsitate ikasketak	21,62	26,12	26,66

Iturria: Udalmap

Haur hezkuntzako unitateen ehunekoa ere baxuagoa da beste lurraldeekiko.

Haur hezkuntzako unitateak, 0 eta 2 urte arteko 100 biztanleko, 2021 (%)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Haur hezkuntza unitateak	4,69	5,22	4,80

Iturria: Udalmap

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Oinherri herri hezitzailean sarean parte hartzen du Udalak.
- Kabia: 0 -3 urte bitarteko umeentzako espazio berria ireki da.
- Nerabeen protagonismoa eta parte hartzea bultzatu nahi izan da Gaztelekuan.
- Haurren parte hartzea bultzatu da, herri antolaketaren inguruan galdeketa eginez.
- Udalekuetako hezitzaileei formazioa eskaini zaie Oinherriren bitartez.
- Herri Eskola eta Haur Eskola indartzeko eta kalitatezko azpiegiturak bermatzeko lanak egin dira: Urtero mantenimendua eta inbertsio maila egokia bermatzeko aurreikuspenak egin dira, Herri Eskolako sarrera-irteeren antolaketa berraztertu da,..

- **Gizartea garapen jasangarri baten eredura bideratu nahi bada hezi beharra** dago. Hezkuntza formala eta ez formala behar beharrekoak ditugu arlo ezberdinetan informatu eta kontzientziatzeko.
- **Belaunaldien arteko zubiak sortzea garrantzitsua da, adinekoek jakituria handia dute gai askorekiko eta honen transmisioa beheko belaunaldietara egitea behar beharrezkoa da.** Balioan jarri behar da beraiek gordetzen duten ondarea, eta behin ere baino garrantzia handiagoa du bizi dugun trantsizio garaian.
- **Patio inklusiboen programa interesgarria litzateke** (Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du %90 batean). Eremu naturalago batean ikasteko (belardiak, puztuak, lokatza, zuhaitzen itzala) eta jolasteko aukera bermatu behar zaizkie haurrei. Natur baliabideen inguruko saio pedagogikoak eskaini daitezke modu horretan. Hainbat esperientzia interesgarri badaude: Azkoitiko Udalak eremu bat lehengoratu du auzolanean, urmael bat eraikiz eta bertako zuhaitzen landaketarekin.
- **Idiazabalen eskola bakarra egotean alderdi onak eta txarrak** ditu. Bakarra izateak aldaketarako indarra ez izatea dakar, ez baitago besteekiko konpetentziarik. Bestalde, eskola bakarra izanik herria bertan elkartzea dakar. Eskola oso atsegina eta gozoa da, gatazkarik gabea, haur gutien integrazioa errazten duena.
- **Gurasoak lotura handia dute eskolarekin.** Eredu aldaketarik ez da eskatu, baina beharrezkoa ikusiko balitz dagoen elkarlanerako giroak erraztuko luke.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Gizarte errespetuzko balioetan eta jasangarritasun balioetan hezteak: informatzea, prestatzea, prestatu.
- Hezkuntza formalaz gain, ez formala ere bultzatzea. Hezkuntza ez arautua era aisialdi hezitzailea sustatu, hezkuntza garapenaren oinarrian jarritz.
- Herri Hezitzailean lantzen den ikuspegia udal politiketan txertatzea.
- Hezkuntzan konpetentzia ez zuzenak lantzea.
- Belaunaldi arteko zubiak eraikitzea eta adinekoek jakituriaren transmisioa egitea beheko belaunaldietara.



5. GJH emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria mota guztien amaiera lortzeko lan eginez emakume nahiz neskato guztiak maila pertsonal eta kolektiboan ahaldundua du helburu nagusi, berdintasun politiken garapena eta baita eragile guztien inplikazioa sustatuz.

AZTERGAIK

- ❖ Emakumeen egoera sozioekonomikoaren azterketa, abiapuntua zein den ezagutzeko
- ❖ Sexu identitatearen lanketa
- ❖ Emakumeen aurkako indarkeriaren datuak eta udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak
- ❖ Emakumeen erabaki guneetan duten presentzia
- ❖ Udaleko parekidetasun politika

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Idiazabalgo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. plana (2021, Elhuyar)**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udal Gizarte zerbitzuen baitan Genero-indarkeria prebenitzea sustatzeko eta biktimei laguntzeko ekimena bideratzen da, honako zerbitzuak eskainiz:

- Etxeko indarkeria edota genero-indarkeria egoeren balorazioa
- Laguntza ekonomikoak genero-indarkeriaren aurrean
- Egoitza etxeko indarkeriaren biktimei diren emakumeentzat
- Etxeko tratatu txarren egoerarako eta sexu-erasoerarako arreta psikosozialerako programa
- Esku-hartze sozio-educatiboa eta psikosozialaren alorreko zailtasunak dituzten adingabeak dituzten familientzat.

HERRIAREN EGOERA

Herritarren ekonomia baliabideei begiratuz gero eta zehazki errenta pertsonalari dagokionean gizonezko eta emakumezkoen arteko aldea oso nabarmena da, Idiazabalen batz bestea emakumezkoen errenta gizonezkoena baino 14.698 € baxuagoa izanik.

Errenta pertsonal osoa, 2019 (€)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Emakumezkoa	19.884 €	18.761 €	17.731 €
Gizonezkoa	34.582 €	29.091 €	27.885 €

Iturria: Udalmap

Udal korporazioa osatzen duten emakumeen kopuruari begiratzen badigu, gaur egun guztira 3 emakume ditu 11 ordekarari politikoen artean (Iturria: Udala)

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak bi izan dira 2021ean (Iturria: Udala-Goieki)

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Berdintasun Batzordea sortu da.
- Emakumeen jabetze eskola martxan jarri da.
- Udaletxeak lantzen dituen estatistika eta datuak generoaren arabera landu eta aurkeztu dira.
- Martxoan Lilaldia eta A25 egunean ekintzak antolatu dira.
- Berdintasuna eta genero ikuspegian formazioa eman zaie udal langileei.
- LGTBI kontzientziazio ekintzak burutu dira.

HERRITARREN EKARPENAK

- Ongizatearekin lotu izan da beti, **zeharkakoa** izan beharko litzatekeen gaia izanik. Hurrengoan eskertzekoa litzateke adib. Ekonomia arloarekin edo/eta ingurumenarekin ere lotzea.
- **Genero berdintasuna bultzatuz eta zeharkako gaia izanik, beste helburu asko lortuko dira:** pobrezia desagertzea, lan duina, desberdintasunak murriztea, hiri iraunkorra,..
- **Udal osaerari** begira emakumeak gutxieneko dira: 11 zinegotzietatik 3 dira.
- **Genero berdintasunean pausu batzuk eman badira ere, azalekoak** izan dira, gizartean ez daude errotuta. Nerabe eta gazteen artean jarrera oso desegokiak ikusten dira oraindik.
- **LGTBI kolektiboarekiko jazarpen** jarrerak herrian bertan pairatu izan dira.
- **Indarkeria protokolo** bat pendiente legoke.
- Enpresetan legeak behartzen die genero berdintasun irizpideak betetzea. 2. Plana egiten dabilta (Jaso).
- Oraindik **lanbide eskoletan segregazio handi** ikusten de ikasketaren arabera eta ikasketa batzuetan emakume gutxi ikusten da.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Idiazabalgo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. plana aurrera eramateko baliabideak eskaini, zehazki bertan jasotzen diren helburuak betetzeko:
 - Udal mailan sailetatik garatzen diren politiketan nahiz udal-prozeduretan genero-ikuspegia sistematikoki txertatzeko baldintzak lantzea.

- Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta emakume anitzak (adin, jatorri,..) sartzeko guneak sortzea.
 - Herritarrak berdintasunean sentsibilizatzea eta zehazki gizonezkoekin maskulinitate-ereduen inguruko hausnarketa sustatzea.
 - Emakumeen partaidetza eta ikusgaitasuna sustatzea espazio publikoan.
 - Hezkuntza espazioetan nahiz herri eragileetan txiki-txikitatik lantzea berdintasuna eta hezkidetzak.
 - Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.
-
- LGTBI+ kolektiboaren ikuspegia eta beharrak txertatu udal politiketan, baita eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuetan ere.



8. GJH-k lehentasunezko gai hauek biltzen ditu: enplegu osoa eta produktiboa, eta lan duina emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea.

AZTERGAIK

- ❖ Udalerriko establezimendu eta enpresak
- ❖ Lan aukerak
- ❖ Biztanleriaren baliabide ekonomikoak, lana eta lan-baldintzak
- ❖ Langabezia
- ❖ Enpresak eta kalitatezko enpleguaren

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Idiazabalgo lehen sektorean diharduten baserriak goraipatzeko liburua (2013, Udala)**
- **Plan de Acción de Embellecimiento IDIAZABAL (2012, Basquetour).**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Idiazabalgo jarduera ekonomikoa hiru arlo nagusietan oinarritzen da: lehen sektorea, turismoa eta industria. Arlo bakoitzaren baitan Udalaren jarduera honakoa hau da:

Lehen sektorean:

Idiazabal landa izaera handiko udalerrria da eta 2 eremu handi bereizten dira bertan, 2 landatasun maila desberdin dituenak: Idiazabal (6 landatasun mailarekin) eta Urtsuaran (4 landatasun mailarekin). Eremuen zehazte hau garrantzitsua da europar eta euskal diru-laguntza lerroetara (LEADER, FEDER, EREIN...) iritsi ahal izateko, horien helburua Idiazabalen bizi diren pertsonentzako azpiegiturak, hornidurak, zerbitzuak eta haien bizi-kalitatea hobetzea delarik.

Eremuen zehazte hau kontuan izanik eta udal proiektuen finantzazio lerro egokietara iristearren, Idiazabalgo Udalak landa garapena bere politiken barrenean sartu du:

- Idiazabalen eragina duten Landa Garapenerako Planen (LGP) prestaketan parte hartzen du era aktiboan.
- LGPak gauzatzen ditu edozein eskumen esparrutan (ikastetxea, osasun zentroa, eguneko zentroa...)

-
- Europako mugaz gaindiko proiektuetan elkarlanean aritzen da: POCTEFA Innolact Proiektua (esnearen sektorean mugaz gaindiko jarduera berritzaileak garatzen lagundu nahi du, eta enpresa horien dibertsifikatzea faboratzen du balio erantsi handiagoa ekarriko duten jardueretara bideratuz).
 - EUROPEAN CHEESE ROUTE ASSOCIATION elkarteko kidea da. Lurralde lankidetzarako europar talde honek nazioarteko hainbat proiektu komunetan parte hartzen du lehen sektorearen eta turismoaren defentsan.
 - Era aktiboan lankide gisa ari da landa garapeneko eragileekin.
 - Larreak kudeatzeko proiektuak garatzen ditu (baso erabilerako lurzoru urbanizaezina):
 - a) Udal jabetzako mendi larre publikoak kudeatzen ditu (2043.1 Idiazabalgo mendia, 4,11 km²).
 - b) Araba eta Gipuzkoako Partzuergoaren jabetzako mendiko larreen kudeaketan parte hartzen du (68,33 km²).
 - c) Beste entitate batzuek (ETORLUR) finantzatzen dituzten mendiko larreen kudeaketa programak gauzatzen ditu.
 - Udalerriko landa garapena (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) sustatzeko dirulaguntza lerroak onartzen ditu, udalerriko natura berezitasunak kontserbatzeko eta bere identitate ezaugarriak gordetzeko, baita nekazaritza enpresariaren lehiakortasuna eta bertako produktua hobetzeko ere.

Eskualde mailan, Goierriin, GOIMEN (Goierriko Landa Garapeneko Elkarte) da landa eremuen garapenaren alde lan egiten duen elkarte, eskualdeko udal eta eskualdeko nekazaritza-elkarteek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak jorratzen du arlo hau.

- Aktibitate ekonomiko berrientzako zerga hobariak ezartzea.
- Covidari aurre egiteko dirulaguntzak
- Turismo eskaintza zabaltzea (Indianoen ibilbidea....)

Turismoa, merkataritza eta ostalaritzan honakoak lantzen dira:

- Turismoari loturiko web gunea: <https://www.idiazabalturismo.com/es/>
- Berriazko informazioa Idiazabal eta bertan gauza daitezkeen jardueri buruz.
- Orientazio topografikoa (mapa eta planoak emanez).
- Aholkatze orokorra prezioez eta zerbitzu turistikoei buruz.
- Idiazabalen interes turistikoa duten ekitaldiak eta zirkuituak dinamizatzea.
- EUROPEAN CHEESE ROUTE ASSOCIATION elkartearen koordinazio teknikoa.
- Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroko zerbitzuak gainbegiratzea.
- Beste udalerrri batzuekiko senidetzeetatik datozen urteko jardueren plangintza egitea eta gauzatzea.
- Ostalaritza eta merkataritza txikia hobetzeko diru laguntzak ematea.
- Kaleko salmenta, ez sedentario, eta Euskal Gazta Azokarako baimenak ematea.
- Beste entitate batzuekin koordinatzea (Araba eta Gipuzkoako Partzuergoa, Basquetour, Goitur, Museo enogastronomikoen sarea...).

Iturria: Idiazabalgo Udala

Industria gaiak GOIEKI (Goierriko Garapen Agentzia) bitartez lantzen dira.

HERRIAREN EGOERA

Gaur egun Udalerriko Barne Produktu Gordina biztanle bakoitzeko 54116 €-koa da (2019), Goierri (39.682 €) eta Gipuzkoa (37.188 €) eta EAEk (36.254 €) dituen balioetatik oso gora, eskualdeko biztanleko BPG-arekiko 15.000 €-ko aldearekin. Herri aberatsa dela esan dezakegu beraz, inguruko lurraldeekiko (Iturria: Udalmap).

Lanbideen erregistratutako langabetuak beste lurraldeekin alderatuta balio baxuagoak ematen ditu, langabezia maila baxua dagoela esan daiteke eta 2012ko datuetatik (%7,16)joera beherakorra izan da. Generoan aldea ikusten da, emakumezko langabetu gehiago dago gizonezkoen aldean.

Lanbideen erregistratutako langabetuak (16-64 urte arteko biztanleen %)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Emakumezkoa	5,87	7,67	9,16
Gizonezkoa	3,39	5,82	7,33
Guztira	4,60	6,74	8,24

Iturria: Udalmap

Langabezia duen gazteak %0,5 dira Idiazabalen (16 eta 24 urteko bitarteko pertsonak). Guztira 10 pertsona daude erregistratuta (Iturria: SEPE).

Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreak eragin txikia du herriko egitura ekonomikoaren Balio Erantsi Gordinean, baina garrantzi handia du Idiazabalgo lurraldearen eta hirigintzaren oreka ongi kudeatzeari dagokionez; izan ere, lurzoru urbanizaezinak udalerriko lurren % 97,70 hartzen du, eta lurzoru horretan biztanleen % 28,61 bizi da. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien erregistroan 271 ustialeku daude izena emanda (Nekazaritza erroldako datua). Hauetatik ordea gehiengo ustialeku txikiak dira, autokontsumo edo aisialdiko jardura dutenak (adibidez behor bat edukitzeko, etxerako oiloak edo oilaskoak hazteko,...)

Idiazabalen 22 saltegi txikizkari eta ostalaritzako 7 establezimendu daude. Jarduera sektorearen araberako azterketan ikusten denez, zerbitzuen % 70,97k elikagaiak saltzen ditu.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRITARREN EKARPENAK

- **Industriak indar handia du** orohar eskualdean eta baita Idiazabalen ere enpresa traktoreak kokatzen dira (Ampo, Jaso, Lau lagun, Iparragirre,...). Honek eroso bizi den gizarte bat ekarri du, eta horrek era berean ekintzailtza murriztea.
- **Profesional onak erakartzeko zailtasuna** dago (soldadura,...), CAF enpresak eramaten ditu gehienak.

-
- **Herriko dendei bultzada emateko eta herritarrek bertan kontsumitu dezan kanpaina sendoak behar dira** (udal web gunean, herriko pantailetan,...) Herriak badu potentziala, erreleboa falta bada ere. Gazta eta kirola bultzatzeko esfortzu handia egin da, ez hainbeste bertako komertzioari eusteko.
 - Hemendik 5 urte barru komertziorik gabe geratzeko arriskua dago. **Herrian bizitza asko eta erosle fidelak egon izan dira Idiazabalen, hau galtzear da.** Helduenek bertako dendetan erosten jarraitzen dute oraindik, gazteak ordea erosketak kanpoan egiteko ohitura beste ohitura hartzen ari dira. Hauen fideltasuna berreskuratu behar da.
 - **Denetarik izango lukeen denda handixeago batek (Erosle txiki bat) on egingo lioke herriko komertzioari,** herritarra erosketak egitera azalera handiko komertzioetara joatea ekidingo luke.
 - Komertzioa bere kaxa ari da lanean: **ordutegietara moldatuz, online salmentarekin, bezeroa goxatuz, gertutasuna eskainiz...** Baina hori ez da nahikoa batzuentzako.
 - Sektorearen arabera ere zailtasun handiagoak daude. Goxoki denda bizirauten ari da eta ordutegiekin estututa,...
 - **Artisautzak erakusketarako eta salmentarako aurrez aurreko eremuak** behar ditu, egiten duten lanari ezin zaio sare sozialetan behar besteko balioa ematen.
 - **Sare sozialak tresna lagungarriak** izan daitezke erakusleiko bezala eta salmentarako.
 - **Lokal hutsak alokatzeko laguntzak** eta programak eskaintzen dira hainbat udalerritan (Adib.: GOIEKIK lagunduta), Idiazabalen ere aukera hau aztertu daiteke.
 - Behe komertzialak etxebizitza bihurtzeko aukera badago Idiazabalen, Kale Nagusian izan ezik. Modu honetan, **komertziorako lokalak etxe bihurtzea ekiditen** da, komertziorako espazioa bermatuz.
 - Gaztagilearen iritziz **gazten salmenta erraza** izaten ari da, momentu onak bizi dituzte, estima handiko produktua izatean.
 - **Lehen sektoreko esplotazio txikiak zaila dute biziraupena.** Eskerrak baduten makinaria erabiltzeko eta erregaiak erosteko sareturik dauden elkarte batean.
 - **Lehen sektorearen egoera guztiz loturik dago gizartearen kontsumo** ohiturekin.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Herriko merkataritza eta zerbitzuei bultzada ematea, beharrak atzemanaz eta helburuak ezarriz: dirulaguntza lerroak, kontzientziario kanpainak, bezeroa fidelizatzeko kanpainak, digitalizazioa sustatuz, bono sistemak ezarriz,
- Bertako produktuen kontsumo jarrerak bultzatzea, kontsumo ohituren aldaketak duen garrantzia herritarrei helaraziz. "Bertako produktua" hitzaren esanahia ondo komunikatu.
- Komertzio berrien irekiera sustatu (alokairuan lagunduz,..), Idiazabal erosketak eremu erakargarria bihurtzeko lan egin.
- Enpresetan langilea entzuteko bideak ahalbidetzeko programak sustatzea.
- Industriaren berrikuntzan lan egitea, herriaren garapenetako oinarrizko ardatza izanik.



10. GJH honen helburu nagusia pertsona guztien gizarte inklusio, inklusio ekonomiko eta inklusio politiko osoa eta aukeraberdintasuna gizarteko sektore guztietan sustatzea da.

AZTERGAIK

- ❖ Udalerriko talde desberdinen egoera ezagutzea eta ongizatearen sustapena: Haur, gazte eta nerabeak, adineko pertsonak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, atzerrian jaiotako pertsonak
- ❖ Etxebizitza babestua

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Idiazabalgo Haur eta Gazteria politikaren ildo estrategikoak (2016, Haur eta Gazteria zerbitzua)**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udal Gizarte Zerbitzuak saila Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikorako sarbide nagusia da. Helburu nagusia da herritar guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte ongizatea bultzatzea. Horretarako, prebentzio, babes eta laguntza funtzioa betetzen du hainbat prestazio emanda eta pertsona eta harreman izaera duten zerbitzuak eskaintzen ditu.

Sailak herritarrei laguntzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikora sartu ahal izan daitezen.

Hori horrela, Idiazabalgo Gizarte Zerbitzuak herriko pertsona eta kolektibo guztiei bideratzen zaizkie eta bi arlo nagusitan lan egiten dute:

- Prebentzio programak garatzen dituzte sustatzeko: 60 urtetik gorako pertsonen autonomia, gizarte bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea, genero indarkeriari aurre hartzea eta biktimei laguntzea, eta adingabeen babesa haien familia eta gizarte guneetan.
- Informazio, Balorazio, Diagnostiko eta Orientazio zerbitzua eskaintzen du. Egoerak baloratu, esku-hartzeak proposatu eta Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta prestazioak aktibatzen ditu, egoeraren ezaugarriak eta egindako balorazioa kontuan hartuta.

Bestalde, Haur, Nerabe eta Gazteei zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzen dira Gizarte zerbitzuetatik:

- Haurren babesgabetasun egoerak baloratzea
- Esku-hartze sozio-educatiboa eta psikosozialaren alorrekoa zailtasunak dituzten adingabeak dituzten familientzat.

Haur, gazte era nerabeei zuzenduriko hainbat zerbitzu eta instalazio ditu Udalak:

Idiazabalgo haur (5-11), nerabe (12-17) eta gazteen (18-29) parte hartzea sustatzeko zerbitzua, "Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren", Gaztematikaren, baitan kokatzen da. Honen xedea eta Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuaren (aurrerantzean PSZ) xedea berbera da: Idiazabalgo haur, nerabe eta gazteei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea. Idiazabalgo PSZ-k bere baitan zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Ikasturtean zeharreko Haur Zerbitzua ('Xapostiralak'): 5-11 urte, astean zehar
- Ikasturtean zeharreko Familia Txokoa: 0-6 urte (familiak dira arduradunak, hezitzailerik gabe)
- Opor garaietako Haur Zerbitzua ('Uda Kanpaina' udaran, bost astez, eta 'Udaberriko Udalekuak' Pazkoa Astean, astebetetz: 3-11 urte, bi orduz (10:30-12:30) edo hiru ordu t'erdiz (9:00-12:30)
- Ikasturtean zeharreko Nerabe Zerbitzua ('Gaztelekua'): 12-17 urte, ostiral eta larunbatetan, 18:00-21:00
- Opor garaietako Nerabe Zerbitzua ('Gazte Aisia' udaran, bost astez, bi orduz (10:30-12:30)

Gazteei zuzendutako hainbat ikastaro antolatzeaz gainera Aizkorpe mailako programa bat garatzen da. Bestalde Gazte Asanbladarekin koordinazioa lanak egiten ditu Udalak.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Etorkinei dagokionean:

10.000 biztanle bakoitzeko erregistratutako immigrazioen tasa BEHAGI-k emandako datuen arabera 8,13koa da.

Biztanleria atzerritarren ehunekoa 5,78ko da (%) beste lurraldeekiko balio baxuagoa izanik.

Biztanleria atzerritarra, 2021 (%)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Atzerrian jaiokak	5,78	8,39	8,26

Iturria: Udalmap

Etxebizitza babestuei dagokionean:

Azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babesturik ez dago Idiazabalen, azkenekoak 2011n egin ziren. Etxebiden jasotako eskaerei begiratzen badiogu, 1000 biztanleko 11,39 eskaera jaso dira 2021ean, beste lurraldeetan jasotzen denaren azpitik oso, esaterako Gipuzkoan 54,88 eskari jasotzen baitira 1000 biztanleko (Iturria: Udalmap).

HERRITARREN EKARPENAK

- Adinekoak bigarren mailako herritarrak sentitzen dira, baina ekarpen handia egin ahal diote gizarteari. **Adinekoari gizartearentzako duen balioaz ohartarazi behar zaio**, aktibo dauden adinekoak gizarteari ekarpen bat egin ahal diotela esanez (Nagusilan da erduetako bat).
- **Desberdintasunak nabariak dira** bertako eta kanpotik datozenen artean batez ere.
- **Etxebizitzarako aukerak ere ez dira berdinak** denentzako. Ez dago denen eskura (gazteak, etorkinak,..)
- Oinarrizko beharrak asetuta dauden arren (RGI laguntzak jasotzen dituzte, etab.) **hainbat zerbitzu garestiegiak dira familia batzuentzako**: musika eskola, ingeleseko akademiak, pilota,...
- **Eskolan desberdintasun nabarmenak** daude jazkeratik hasita eta horrek haurren arteko bereizketak ekartzen ditu. Desberdintasun horretan hezi beharra aipatu da, jazkerak ez luke egoera hori eragin behar eta haurrak desberdintasun horretan desberdinarekiko errespetuan hezi beharko genituzke. Gurasoengandik hasi beharko litzateke ordea, beraiek bait dira ereduak. Gizarte lehiakor eta kontsumistak eragindako ondorioak dira.

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Herri inklusibo baterako lan egin. Aniztasun ekonomiko, fisiko, generozko, jatorrizko,...guztiak errespetatu eta aukera eta baldintza berdinak izan ditzaten bermatu.
- Herritar orori etxebizitza duin bat bermatzea.
- Etorkinen integrazioa lantzea: lanean, eskolan eta gizartean.
- Herritarra ezberdina denarekiko errespetuan hezteak.
- Idiazabalgo Haur eta Gazteria politikaren ildo estrategikoak aintzat hartzea (2016, Haur eta Gazteria zerbitzua)



18 GJH honekin hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea lortu nahi da.

AZTERGAIK

- ❖ Kultura eta hizkuntza aniztasuna
- ❖ Euskararen ezagutza eta erabilera

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Idiazabalgo Euskararen erabilera areagotzeko Plana, 2010-2012 Plan Estrategikoa” (2009, EMUN)**
- **Idiazabalgo 2022ko Euskararen erabilera sustatzeko plana (2022, UEMA)**
- **Idiazabal bizirik eta identitate propioarekin: kultura, euskara, heziketa eta gazteria estrategia (2021, EMUN)**

UDAL JARDUERA

Euskara sailaren helburua da euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea, Udalean eta herrian. Horretarako informazioa, dokumentazioa eta dirulaguntzak eskaintzen ditu herritarrentzako.

Euskararen bitan honako zerbitzuak eskaintzen ditu Udalak:

- Udal barruan eta udalerrian euskararen erabilera areagotzeko planak
- Euskararen egoerari buruzko informazioa
- Diru-laguntzak kudeatze: Euskara ikastea sustatzeko diru-laguntzak eta Euskararen erabilera hedabideetan sustatzeko diru-laguntzak

Idiazabalgo Udala UEMAko kide da 2021etik eta mankomunitatearen laguntzarekin Idiazabalgo Euskararen erabilera areagotzeko Plana idatzi da.

Kultura sailak eskaintzen dituen zerbitzuen artean:

- Kultur ikastaroak eta ekintzak sustatu eta kudeatzea
- Kultur ekitaldiak antolatu
- Herriko jaiak antolatu eta koordinatu
- Udal-mugar-tean dagoen kultura-ondarea sustatu eta haren zabalkundea egin
- Argitalpenak

-
- Diru-laguntzak kudeatu: Kultur ekimenak Idiazabalgo udalerrian antolatzeneko diru-laguntzak

Udalak antolatzen dituen **kultur ikastaroak** urte osokoak izaten dira, irailtik ekainera bitarte luzatzen direnak. Bi ikastaro eskaini ohi dira: joste-lanak eta egur lanketa. Matrikulazio-kanpaina irailean egiten da. San Blas jaietan erakusketa bat antolatzen dute ikasleek, urtean zehar egindako lanekin.

Bestalde, **Tertulian Zikloaren** hitzaldiak hilean behin eskaintzen ohi dira, astearteetan, gai anitzen inguruan. Saio guztiak grabatu egiten dira eta liburutegian eskuragarri daude mailegurako. Euskaraz nahiz gazteleraz eskaintzen dira, hizlariaren arabera.

Mundua gutxinaka **digitalizatzen** doa eta Udalaren helburua ere bada herritarren gaitasun digitalen garapena sustatzea. Horretarako, 2019. urtean estreineko aldiz, Zientzia Astea antolatu zuen. Bestetik, Udalarekin harreman digitala errezteko asmoz baliabideak, prozesuak eta formazio-saioak herritarren eskura jarri ditu.

Hainbat **kultur ikuskizun** ere antolatu izan dira, besteak beste: 'ESKU HARRIAK: Oteizaren (h)aria' euskal dantza garaikidea. MUGMUS Laborategia (2019ko maiatza), Mikel Urdangarinen kontzertua (2019ko martxoa), 'J.A. Artzeren omenez' kontzertua. Landarbaso Abesbatza eta Oskarbi taldea (2019ko otsaila), 'Maskarada Idiazabalen' (2018ko uztaila).


Kultura instalazioei dagokionean honakoak daude: Udaletxeko areto nagusia, Guraso elkarte aretoa (erabilera anitzekoa), Mediku-etxe zaharra (Kultur ikastaroetarako) eta Liburutegia.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

UEMAk emandako datuen arabera euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten duten pertsonen ehunekoa; zehazkiago, elkarrizketa bat euskaraz izateko gai direnak %84,8 dira Idiazabalen (Iturria: Eustat, 2021).

Erabilerari dagokionez, bi datu ditugu. Batetik 2021eko iraileko kale erabilera datuak: %73,1 da euskararen erabilera. Adin taldeka, honela banatzen da:



Bestalde, etxeko erabilera dugu, herritarren %67,4k egiten du euskaraz etxean (Iturria: Eustat, 2016).

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Euskaraldian aktiboki parte hartu du Udalak.
- Euskararen aldeko konpromisoa eta Illati Euskara Elkartearekin elkarlana sustatzeko adieazpen instituzionalaren onarpena egin da.
- Gaztetxoan informazio kanal eta ohiturei buruzko azterketa egin da.
- DBHra kanpora ikastera doazen ikasleekin euskaraz egiteren garrantziari buruzko saioa antolatu da.
- Merkatari eta ostalariei euskara zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Kaleko hizkuntzaren erabilera neurketa egin da.
- Haur jaioberrien gurasoei euskaraz egiteko eskutitza bidali zaie.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Illati Euskara Elkartea** sortu zenean mugimendua bazegoen baina gaur egun bazkideek kuota ordaintzeaz gain ezer gutxi egiteko prest daude. Gaur sei lagun daude lanean borondatez eta zailtasunak dituzte ekimenak antolatzeko. Helburu xumeak jarri dira azken urteetan ez baitago lan egiteko prest dagoenik. Aldizkaria mantentzen da. Aurten Euskaraldia ez da antolatuko.
- **Bikote mistoak areagotu** dira eta hauetan etxeko hizkuntza gaztelera izatea ekartzen du.
- Nerabe eta gazteek oraindik euskararako joera badute ere **gurasoen joera gaztelera da.**
- **Kultura- kirol beharrak asetzerako ondoko herri handietara jotzen dute askotan idiazabaldarrek.** Hori ez da txarra, Idiazabalen ez dago denetik eskaintzerik.
- **Kulturetze berriaren proiektua** gauzatzea beharrezkoa da herritarra elkartzeko bokazioa izango duena.
- **Kirolean azpiegiturak** sakabanatuta egotea ez da arazoa, agian optimizatu beharko lirateke.
- **Eskolako atariak eskola orduetatik kanpo irekita** egotea ondo baloratzen da.

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Udalerrian kultur ekipamendu hausnarketa egin eta kultur ekipamenduak egungo errealitatera egokitu, kultur etxe berriaren proiektuaren bideragarritasuna aztertuz.
- Idiazabalgo Euskararen erabilera areagotzeko Plana (UEMA, 2021) aurrera eramateko baliabideak eskaini, honako helburuak lortzeko:
 - Udal barruko euskararen erabilerak gora egitea.
 - Gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea.
 - Herrian bertan euskalduntze-alfabetatze talde bat sortzea.
 - Etorri berriak euskarara erakartzea.
 - Denda eta tabernetan euskara erabiltzea sustatzea eta bermatzea.
 - Turismoan euskara balioan jartzea eta bisitariei mezua helaraztea.
 - Banketxeek hartu zituzten konpromisoak betearaztea eta neurri berriak adostea

- Aisialdiko eskaintza osoa euskaraz izatea
- HEDATU hezkuntza proiektua udalerriko ikastetxean/ikastetxe guztietan sistematizatzea.
- Hezkuntza arautua eta ez arautua elkarren osagarri bihurtzea ikasleak ahalduntzeko bidean.
- Osakidetzak/Osasunbideak herrian ematen duen zerbitzua euskaraz izatea.
- Beste administrazioetan egon daitezkeen arazoan aurrean erantzutea.
- Herritarrak ahalduntzea eta aktibo mantentzea.
- Proiektuek herrian izango duten eragina aztertzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Euskara sustatzeko ekintzak diruz lagunduak izan daitezzen lortzea.

2.2. INGURUMEN ETA KLIMAREN ARLOA



6. GJH-k ur horniduran eta saneamenduan eragin nahi du, baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratuz.

AZTERGAIK

- ❖ Uraren zikloaren kudeaketa
- ❖ Ur hornidura eta ur edangarria
- ❖ Ur kontsumoa eta baliabide hidrikoen erabilera jasangarria
- ❖ Ur saneamendua eta higiene zerbitzuak
- ❖ Ur-ekosistemak

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Idiazabalgo udalerrria **Gipuzkoako Ur Kontsortzioko** kide da, eta hark eskumena du sare primarioetan ur hornidurarako eta saneamendurako azpiegiturak ezartzeko eta ustiatzeko, baita dagozkien zerbitzuak emateko ere. Kontsortzioak Idiazabalgo udalerrian ur hornidura «altan» emateko saneamendua eta zerbitzu publikoa kudeatzen ditu.

Idiazabalgo Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak lankidetzatza hitzarmen bat sinatu zuten 2006ko martxoaren 15ean. Hitzarmen horren bitartez erabaki zen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bere gain hartuko zuela URAREN ZIKLO INTEGRALA, barne hartuta altan eta bajaran dauden sareen kudeaketa, eta are egin beharreko inbertsioak egitea ere.

Lankidetzatza hitzarmena 2017an luzatu zen, eta honako Inbertsio Plan hau gauzatzea du xede.

Iturburuei dagokionean: Europako Uraren Esparru Zuzentarauaren (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko 2000/60/EE UEZ) 7. artikuluan ezartzen da Europar Batasuneko kide diren estatuek demarkazio guztietan espezifikatu behar dituztela egunean giza kontsumorako 10 m³ ur baino gehiago biltzen dituzten edo 50 pertsonari baino gehiagori hornidura ematen dioten ur masa guztiak, baita etorkizunean horretarako erabiliko direnak ere. Eremu horiek Eremu Babestuen Erregistroan (EBE) jaso behar dira. Eremu Babestuen

Erregistroan ez dago Idiazabalgo udalerriko ur bilketarik, Uraren Euskal Agentzia – Ur Agentziak egindako Uraren Informazio Sistemaren bost hornidura iturburu, 2 industria iturburu eta 3 hiri iturburu jasota dauden arren.

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Errekaren egitura naturala berreskuratzeari begira presa txikien eraiste lanei ekin zaie.
- Angulak berreskuratzeko programa gauzatu da.
- Gurutze Berri auzoko proiektuan Trikuerreka erreka kontuan izan da.
- Kaltzadako iturri naturala berreskuratu da
- Iturri irisgarria jarri da Txomenarenako parkean
- Lorategietako eta futbol zelaiako erregadio automatikoak konpondu dira
- Futbitoko iturri naturalaren emaria berreskuratzeko ahalegina egin da.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Sareko uraren etxeko kontsumoari begiratzen badiogu (hornikuntza baxan), ur eskari osoa, biztanleko eta eguneko 151,38 litroko da, beste lurraldeekin alderatuta kontsumoa baxuagoa da eta gainera azken urteetan kontsumoak behera egin duela esan dezakegu, 2011 urtean eskaria handiagoa den (159,62 l/bizt./eguneko).

Ur eskari osoa, biztanleko eta eguneko (l/bizt./egunak)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Ur eskaria	151,38	170	176

Iturria: Udalmap

Ur kontsurtzioak eskaintako datuen arabera etxeko kontsumoa urtean 104 m³-koa da eta urteetan datu hau mantentzen joan da gutxi gora behera.

2021. urtean, honako hobekuntza hauek egin dira sarean:

- Beti Goiz taldeen hornidura-hargunea berritzea.
- Goardi poligonoko biltegiaren jaitsiera-tartea berritzea.
- Ihesak bilatzeko 15 kanpaina egin dira, hornikuntza-sarean konpondutako 5 ihesen eta antzemandako 4 ihesaldi partikularren ondorioz. Saneamendu-sarean, 2 libratze eta 2 konponketa egin dira.

Altan, hiruhileko batezbesteko kontsumoa 40.800m³ ingurukoa da; eta baxan 34.800 m³ ingurukoa. Altako eta baxako kontsumoaren arteko aldeak ematen digu uraren galera, hau da fakturatu gabeko uraren ehunekoak, Idiazabalen kasuan %14koa izanik. Uraren galera honela ematen da:

- Neurgailuen azpikontaketa: %8.
- Neurtu gabeko kontsumoa (bideak garbitzea, baldeatzea, suak itzaltzeko zerbitzua, e.a.): %2.

-
- Kontrolatu gabeak eta iruzurrak: %2.
 - Neurgailuak jarri aurretik instalazio pribatuetan izandako ihesak: %2.
 - Banaketa sarearen eraginkortasun falta: %0.

Arriarango Edateko Uren Araztegia kontrolak egiteaz gain, Idiazabalgo banaketa sarean 19 kontrol analisi eta 2 analisi oso egin dira eta aztertutako lagin guztiak egokiak ziren parametro guztietan.

Saneamendu-sarera konektatuta dauden udalerriko etxebizitzak ehunekoak eta sarera konektatuta ez dauden baina haien hondakin-urek tratamendu egokia jasotzen duten udalerriko etxebizitzak ehunekoak ez da ezagutzen.

Ur Agentziak ur masen kalitate biologiko, kimiko eta fisikoaren gainean egiten duen jarraipen plataforman jasotzen den informazioaren arabera Idiazabal zeharkatzen duen Urtsuaran erreka gaineko laginketa punturik ez badute ere Seguratik behera datorren Oria ibaiaren laginketa puntuak neurtutako parametroek egoera ona adierazten dute (ekologikoa, biologikoa eta kimikoa).

Urtsuaran erreka Idiazabalgo herria zeharkatzean ordea kanalizaturik agertzen da, bere egitura naturala galtzen duelarik.

HERRITARREN EKARPENAK

- Ur kontsurtzioak kudeatzen du gaur egun ur- hornidura eta saneamendu sarea. Lehen autonomoagoak ziren, baina ur kalitatearen kontrolaren aldetik eta lehorreen aurrean hobeto daude orain. **Sareko ura Idiazabalera iristeko bonbeo sistema bat beharrezkoa da eta honek energia kontsumo bat dakar.**
- Iturburu eta depositu partikularrak edo kudeaketa pribatua dutenak badira, eta bertako uren kalitatearen gaineko kontrola egiten da. **Legez iturri hauen jabeek kontadoreak jartzeko betebeharra** dute (ura baliabide publikoa da).
- **Piszinako ura saretik hartzen da** gaur egun eta lehen herriko depositu batetik hartzen zen. Ondo legoke ur-hornidura puntu hau mantentzea.
- Urtsuaran auzoan dagoen ur guztia aintzat hartuta, **dauden iturburuak mantenua egitea ondo legoke**, Idiazabalek ur sarearen aurrean alternatiba bat izan dezan.
- Ur zikinen **saneamenduko kolektore sarea ez dago osatuta** eta hainbat puntutan erreka doa. Lan hauek Ur kontsurtzioaren esku daude. Etxebizitza batzuk ere oraindik ez daude saneamendu sarera loturik eta erreka isurtzen dituzte ur zikinak.
- **Idiazabalgo hainbat jardueren eraginez (industria, abeltzantza), aire eta erreka kutsadura egoerak** sortzen dira. Esaterako erreka ondoan dauden ganadu granjetatik errekarako isurpenak ematen dira. ANPO enpresak erreka egiten dituen isurpenak atzematen dira, tarteko egoten den usainagatik.
- **N-1 errepide bazterrean pilatzen den zaborra erreka** iristen da euriteetan.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

-
- Udalerriko iturburuen inbentarioa osatu eta hauek herria hornitzeko duten bideragarritasuna aztertu, etorkizunean Arriarango urtegiari alternatiba bat izan daitezzen.
 - Udalerriko eremu sakabanatuan egon daitezkeen saneamendu moduen inbentarioa egitea.
 - Saneamendu sarea osatzen joateko lan egitea.
 - Uren berrerabilpen sistemak ezartzeko bideragarritasuna aztertzea.



7. GJH-k egungo energia eredua aldatu nahi du, pertsona guztien energia eskuragarri, fidagarri, modernoa eta efizientea izan dezaten, baita energia berriztagarrien bidezko energia ere.

AZTERGAIK

- ❖ Energia kontsumoa sektore desberdinetan
- ❖ Energia eraginkortasuna
- ❖ Energia berriztagarriak
- ❖ Pobrezia energetikoa eta energiarako sarbidea

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Energia Plana (2021, Nazertek)**
- **Kale Argiteriaren Auditoretza (2021, Nazertek)**
- **Udal instalazioen Auditoretzak: PilarEnea, Futbol zelaia, Musikagunea, Herri Eskola (2021, Nazertek)**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:


- Energia murrizteko neurrien aplikazioa
- Eguzki energia bidezko farolak jarri dira Arizti auzoan
- Monitorizazioa sistema martxan jarri da Udal instalazio eta eraikinen energia kontsumoaren kontrolerako.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldiak antolatu dira, energia aurrezteko eta energia berriztagarrien inguruan.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Udalerriko urteko kontsumo elektrikoa gaur egun biztanleko 8.919 Kwh-koa da. Idiazabal 2021ean 2013ko kontsumo datuetara itzuli da, tartean kontsumo igoera bat egon delarik. 2015ean jaso da daturik altuen.

Udalerriko urteko kontsumo elektrikoa (Kwh/biztanle)



Iturria: Konpainia hornitzailea

Idiazabalen instalatutako eguzki energiaren potentziari dagokionean beste lurraldeko tasen azpitik kokatzen da.

Instalatutako eguzki energiaren potentzia, 2021 (kW/10.000 biztanleko)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Eguzki energia pot.	165,28	224,80	357,08

Iturria: Udalmap

Energia eraginkortasunaren ziurtagiria duten etxebizitzak jada 254 dira gaur egun (Iturria: Udalmap, 2021). Urtez urte etxebizitza gehiagok kudeatu dute ziurtagiria.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Energia trantsiziorako bidea egiten hasi** beharko litzateke Idiazabalen eta horretarako herriko herritar eta eragile ezberdina ondo informatzea garrantzitsua da. Komunitate mailan heldu beharko litzaioke gaiari.
- Ekoizten duguna garbia izan beharko litzateke (berriztagarriak), baina hainbesteko kontsumoa beharrezkoa da? **Energia kontsumoa aurrezteko gizartea hezte**a nahitaezkoa da.
- Energia berriztagarriez auto-hornitzeko, **udalerriak dituen baliabide naturalek eman ditzaket**en aukeren **prospekzioa egin beharko litzateke**: hidraulikoa, eolikoa,...
- **Energia iturri berriak** aztertu behar dira: Ximaurretik eratorritako bio-metanola izan daiteke aukera bat.
- **Haurreskolan geotermia sistema** ezarri da berokuntzarako.
- Beste aukera bat eraikin publikoetan **biomasa komunitarioak** ezartzea litzateke, basoak ematen digun baliabidea erabiliz. Gaur egun biomasa galdarak oso eraginkorrak dira, berokuntza sistema bezala ez ezik, ur berorako.
- Udalerrian hainbat gunetan jarri diren **eguzki plaka bidezko farolak** garestiak izan badira ere **oso eraginkorrak** direla ikusi da.
- **Kotxe elektrikoa benetan aukera jasagarri bat** den jakiteko nahikoa argudio ez daude.
- Jaso enpresa lege betekizunez gain **ingurumen ziurtagiriak lortzeko bidean** dago eta eguzki panelak jartzeko proiektua dago etorkizunera begira (ISO 14001). Bestalde, **Energia ikuskaritza** egin dute.

LEHENTASUNeko JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Udal Energia Plana (2021) garatzeko baliabideak jartzea, Udala 4/2019 Legeari egokitzuz.
- Energia trantsizio ez espekulatibo batean aurrera egitea, burujabetza baten bila, pobrezia energetikoko egoerak aintzat hartuta.
- Energia berriztagarriez auto-hornitzeko, udalerrriak dituen baliabide naturalek eman ditzaketen aukeren prospekzioa egitea.
- Energia berriztagarrien komunitatea sortzea.
- Herritarra energia eraginkortasunaren eta berriztagarrien gaian informatzea, espekulazioan erori gabe: energia berriztagarrien instalazioak jartzeko aukerak, etxebizitza isolatzeko aukerak, galdara eraginkorren aukerak, erakunde publiko ezberdinek eskaintzen dituzten dirulaguntzak,...
- Udalarenak diren eraikinen energia kalifikazioa hobetzea eta energia ez kutsatzaileak ezartzea, eredu izateko.



9. GJH erronkatzat hartzen ditu eraldaketa digitala eta eredu ekonomiko zirkular eta deskarbonizatu baterantz aurrera egitea.

AZTERGAIK

- ❖ Industria-establezimenduen ezaugarriak
- ❖ Berrikuntza teknologikoa
- ❖ Industria-establezimenduen ingurumen kudeaketa eta ekonomia zirkularra.

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

GOIEKlren (Goierriko Garapen Agentzia) bitartez lantzen da industriaren esparrua.

Udalak Jarduera Lizentzia emakidan du eskumena. Energia eraginkortasunaren baitan eta berrikuntzan hainbat proiektu garatzen dira bertatik.

Ekonomia zirkularrari dagozkion proiektuak SASIETA mankomunitatetik bideratzen dira.

HERRIAREN EGOERA

Idiazabalen, industriako jarduerak indar handia du. Zenbait industria handik eta enpresa txikiz osatutako sare handi batek osatzen dute industria sarea.

Bi eremutan kokatzen dira industriak: GOARDI INDUSTRIALDEA eta EZIOLATZA INDUSTRIALDEA

Iturria: Idiazabalgo Udala

Idiazabalgo enpresa pribatuetan, instituzio publikoetan eta Udalak kudeatzen ez dituen beste erakunde batzuetan egon daitezkeen ingurumen-ziurtagirien kopurua ez da ezagutzen.

- **Berrikuntza eta ingurumen eskakizunak geroz eta handiagoak** dira bezeroen aldetik. Ibex 35ean kotizatzen duten enpresa handiek (Acciona, Naturgy) traktoreak dira zentzu honetan. Era berean Idiazabalgo enpresa handien hornitzaileen gainean eskakizunak handiagoak dira.
- **Idiazabalgo industria enpresetan RSC (Responsabilidad Social Corporativa)** delakoaren baitan lana dago egiteko. Irabaziak egon diren urteetan herriko edo/eta eskualdeko hainbat proiektu diruz lagundu badira ere, gaur egun galerekin ez da erreza eskaera guztiei aurre egitea. Enpresak (Jaso) badu konpromisoa inguratzen duen gizartearekiko eragiten dituzten kalteak konpentsatzeko ordainetan (soinua, kutsadura,...)

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Pertsonetikiko eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa duen industria-eredu bat eraikitzen laguntzea eta horretarako udala-industria sektorearen lankidetzarako bilguneak sortzea.
- Udalerriko enpresetan “Erantzukizun sozial korporatiboa” bezalako programak abian jartzeko elkarlana.



11. GJHk guztiontzako hiri-eredua lortu nahi du, bertako azpiegitura, zerbitzu eta espazioak inklusiboak, seguruak eta jasangarriak eginez.

AZTERGAIK

- ❖ Udalerriaren egitura orokorra
- ❖ Etxebizitzak
- ❖ Bestelako erabilera eta zerbitzuak: garraio publikoa, aparkalekuak, espazio libre eta berdeen zuzkidura, ondare natural eta kulturala.
- ❖ Lurzoru kutsatuak
- ❖ Airearen kalitatea eta kutsadura.
- ❖ Arrisku natural, teknologiko, antopologiko eta sozialak

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Idiazabalgo Hiri Antolamendu Plan Orokorra (2022)**
- **Idiazabalgo Irisgarritasun plana (2019, Geotech)**
- **Idiazabalgo hiri-trafikoa arautzen duen ordenantza.**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Idiazabalgo Hiri Antolamendu Plan Orokorra argitaratu eta onartu berri da (2022). Plan Orokor hau Idiazabalgo hirigintzaren gidalerro izango da eta datozen urteetako garapena ordenatuko du. Idiazabalgo Udalaren hirigintza-zerbitzuen barruan, udal eskumenak ondorengo arlo hauetan kudeatzen dira:

- Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina
- Biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea
- Idiazabalgo barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
- Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea
- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea
- Herriko parkeak eta espazio publikoak berritzea eta denontzako espazioak bilakatzea: Sagasti berreskuratzea, Kiroldegian eta pilotalekuan umeei jolasteko aukera eman,...

Idiazabalgo Udalak etxebizitzak planifikatzeko, programatzeko eta kudeatzeko eskumena du, une bakoitzean indarrean dauden planeamendu orokorreko araei jarraiki. Tasatutako udal etxebizitza promozioek babes sozialeko etxebizitzaren ezaugarri eta erregimen juridiko berdinak dituzte, legeak eta Idiazabalgo Udalak argitaratutako ordenantzak aurreikusten dituzten espezialitateekin.

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Medikuei etxe zaharrek lorategia erabilera publikora zabaldu da.
- Bidegorri sarea osatzeko eskaera egin zaio Aldundiari.
- Denontzako Idiazabal azterlana bideratu da eta proposamenak jaso dira.
- Eduardo Irizar kalean berritze lanak egin dira espaloiak zabalduz eta aparkalekuak berrantolatuz.
- LandaMugi dirulaguntza eskaintzen hasi zaie landa eremuko herritarrei.
- Europako Mugikortasun astea ospatu da: txirrinak mantentzeko ikastaroa, bigarren eskuko mugikortasun azoka, txirrinak, bide segurtasun ikastaroa...
- Bide publikoen inbentarioa egin da.
- Kaleko katuen kontrol etikorako programa martxan jarri da.
- Uso plagaren kontrako kanpaina eta galdutako txakurrentzako txip irakurgailua eskuratzeko kanpainak egin dira.
- Ibilgailuen zerga ezartzean ibilgailuen zaldien araberako prezioa orekatua ezarri da irizpidetzat.
- Neurketa akustikoak egin dira zeinbait udal eraikinetan.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Idiazabalgo herriaren azalera 2930 Ha hartzen ditu eta azalera honen %3,42 lurzoru artifizializatuak hartzen du (Iturria: Udalplan).

Egoitza lurzoruan dagoen etxebizitza dentsitate maila altuagoa da beste lurraldeekiko.

Etxebizitza-dentsitatea egoitza-lurzoruan (Etxebizitza/ Ha)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Etxebizitza dentsitatea	75,56	64,35	48,61

Iturria: Udalmap

Parke eta lorategi publikoak, udalerrian txertatutako natur zatiak, jabari publikoko ondasunak dira, herritarren beharrezan asebetetzera bideratuta,, bereziki haurrenak eta adinekoenak.

Udalerriaren erdigunean Txomenarena parke publikoa dago, ehun urtetik gorako espezieak dituen parke botanikoa (6.030 m²). Jarraian datozen parkeak nabarmentzen dira: Pilarrenea, Bere Nahia, Torre-etxea eta Toki Eder.

Parke eta lorategi publikoen azalera: Hiri lurzorua %13,41.

Parke, lorategi eta berdeguneek udalerrian hartzen duten biztanle bakoitzeko azalera Gipuzkoa eta Erkidegoak dituen berdegune indizeen gainetik geratuz. Iturria: Idiazabalgo Udala

Udalerrian parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera (m²/biz.)

	Idiazabal	Gipuzkoa	EAE
Berdeguneak	18,58	18,24	15,60

Iturria: Udalmap

Mugikortasun jasangarri baten bidean motordun ibilgailuak ekiditeko udalerrian dauden bizikletentzako bideen luzera 2,21 km-takoa da 10.000 biztanleko, Gipuzkoako batzbestekotik behera (3,78 km 10.000 biztanleko) (Iturria: Udalmap,2009).

Idiazabalen erregistratutako trafiko istripuak (10.000 biztanleko) 18,80 izan dira 2020an. Tasa hau Gipuzkoa (3,72 istripu) zein EAeko (3,37 istripu) datuetatik gora geratzen da. Hala ere Idiazabalgo trafiko istripuen bilakaeran beherakada egon da, 2012an erregistratu ziren istripu kopurua bikoitza izan zen (35,29 istripu).

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen azalerari begira, Idiazabalgo azalera guztitik % 0,83koa da.

Urtean airearen kalitate "oso ona" edo "ona" edo "hobetzeko modukoa" duten egunen ehunekoa 99,18-koa da (Iturria: Udalmap, 2013) gainontzeko lurraldeetan gertatzen den modura.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Irisgarritasunari** dagokionean Udala lanean ari bada ere oraindik asko dago egiteko. Gurgildun aulkian doazenentzako koska handiak daude herrian hainbat puntutan. Lehenetsuneko lanei heldu beharko litzaieke: zebra bideak lautzea, espaloietako zulo eta koxkak konpontzea,...
- **Eremu berde** ugari eta beraz nahikoa itzal badu Idiazabalek herri barruan ere (Txomenane, Pilarrenea, Zigor,...).
- **Gune estali finko baten beharra ikusten da.**
- Industria gunea herrigunearekin **bidegorri lotura egitea** beharrezkoa da eta hau Udalaren egitea da.
- Hiri bildu bat ezin izan da lortu Idiazabalen N-1aren baitan eraiki baita. **Goiko auzoa herrigunetik urrun** geratu da eta komertzioa aldiz plazatik behera garatu da.
- N-1 desbideratuz eta **komertzio gunea oineztatuz** erosoagoa izango litzateke herritarren mugimendua eta oinezkoari tokia emango litzaioke.
- **Lotarako herria bihurtu ez dadin lan egin beharra dago. Herri erakargarri bat lortu** behar dugu non arlo ezberdinetan jasangarritasuna bermatzen den: mugikortasuna, eremu berdeak, aire kalitatea,...
- **Garraio eredu berriak bultzatu** behar dira, bidegorri sarea osatuz, garraio publiko eraginkorra bermatuz.

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Idiazabalgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra oinarri hartuz hirigintza inklusiboa eta jasangarria bultzatzea.
- Etxebizitzarako sarbidea erraztea, bai gazteei baita zaugarritasun arriskuan dauden pertsoneri, arreta jarriz hutsik dauden etxebizitzetan eta aurreikusita dauden zuzkidura bizitoki eta etxebizitza babestuetan.
- Lotarako herria bihurtu ez dadin lan egitea. Herri erakargarri bat lortu behar dugu non arlo ezberdinetan jasangarritasuna bermatzen den: mugikortasuna, eremu berdeak, aire kalitatea,...
- Herriko merkataritza indartzeko neurriak hiri antolamendu mailan lantzea.
- Orohar, Idiazabalgo Irisgarritasun planean (2019) zehaztutako helburuekin aurrera egin. Irisgarritasunari begira herrian dauden trabak atzemateko eta dauden beharrak zehazteko ezindu eta adinekoekin hartu emana bultzatzea.
- Oinezkoen eta bizikleten bideak eta espazioak zabaltzen jarraitzea, batez ere irisgarritasuna eta iragazkortasuna hobetuz eta kotxearen erabilera murriztuz.
- Kutsadura akustikoa ekiditeko N-1eko panel akustikoak jartzeko eskaerarekin jarraitzea.
- Herriko berdeguneen eta parkeak zaintzea eta mantenu lan egokiak egitea.



12. GIH-k egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatu nahi du, baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra lortzeko.

AZTERGAIK

- ❖ Hondakin sorrera eta kudeaketa
- ❖ Hondakinen berrerabilpena eta birziklapena
- ❖ Hondakinen isurketa inkontrolatuak
- ❖ Elikagaien xahuketa eta Kontsumo arduratsua
- ❖ Udalak egiten dituen erosketetan eta kontratazioetan ingurumen irizpideak
- ❖ Udal-zerbitzuetako ingurumen-kudeaketa

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **ZERO PAPER helbururantz aurrera egiteko plana (2019, Udala)**

UDAL JARDUERA

Idiazabalgo Udaleko Udaltzari dagokio hondakinen bilketarako sistema hautatzea, eta Udalak hautatutako sistema hori kudeatzeaz arduratzen da Sasieta Mankomunitatea (kontratazioak, diru-laguntzak, hitzarmenak...). Bilketa sistema edukiontzien bidez kudeatzen da eta honako ezaugarri hauek ditu:

- Txartel elektronikoko txipduna errefusa edo birziklagarria ez den hondakinaren edukiontzi grisa (asteazkenean) eta pixoihalen edukiontziak (egunero) irekitzeko behar da.
- Hondakin organikoa biltzeko edukiontzi marroia irekitzeko giltza behar da.
- Landa eremuan bizi diren herritarrek hondakinak egoki sailkatuta eta dagokien edukiontzian utzi behar dituzte ondorengo bilketa guneren batean (birziklagune):

Guardi eta Ezioletza industrialdeetan honako zerbitzu hauek ematen dira: Paper/kartoiaren bilketa, Egurraren bilketa, 3. Errefusaren bilketa.

Zigor espedienteak: 2018tik, Sasieta Mankomunitateak hondakinen bilketako arauak hausten dituzten udalerriko herritarren kontrako zehapen espedienteak izapidetzen ditu.

Organikoa bakarrik biltzen zaie nekazal elikadura-enpresei, aurrez Sasieta Mankomunitateari eskatzen badiote.

Honako ekimen esanguratsuak ere gauzatu dira Udaletik:

- Kalitatezko konposta zuri esker kanpaina Sasietarekin batera antolatu da.
- Berziklatze puntuak gehitu dira herrian zehar (pilak eta oihalak).
- Zaborra modu deskontrolatua botatzen zen puntua kendu da.
- Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzu berriaren esleipenak burutu dira.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorkuntza, 0,83 kg-koa da, biztanle eta egun bakoitzeko eta datu hau azken hamarkadan mantentzen joan da.

Gaika biltzen diren etxeko eta merkataritzako hondakinak %76,4 dira.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Bizi eredia eta kontsumo ohiturak aldatuz** doaz. Erosketarako azalera handiek eta online erosketek bertako merkataritzaren gainbehera dakarte.
- **Gehiegi kontsumitzen da ete denetik** (erosketarako oihalezko poltsak ere pilatzen doaz etxeetan).
- **Plastikoaren kontsumoa ere areagotuz** doa eta honek asko kezkatzen gaitu. Honen aurrean alternatibak garatu behar dira.
- **Hondakinen gaia Tabu** bihurtu da, enbarazu egiten du. Gaur egun Sasietaren esku utzi da hondakinen kudeaketa.
- Merkataritzan poltsak kobratzen hasi zirenetik aldaketa nabarmena egon da. Gehienek **etxetik dakarte poltsa eta ontzia erabiltzen hasi dira harategietan.**
- Goxoki dendan ere **poltsa biodegradagarriak** erabiltzen hasi dira (hau guztiz gomendagarria ez den arren).
- **Jasoko enpresan ekonomia zirkularrari** dagokionean, sortzen den hondakinik ugariena txatarra da eta hau lehengai bezala saltzen da. Hornitzaileak era berean %80 batean euskaldunak dira eta gainontzekoa Txinatik ekartzen da, dituen koste baxuagoengatik.
- Sortzen dituzten **hondakin arriskutsuen gaineko kontrola handia** da eta kudeatzaile ofizialekin egiten dute. Bestalde, hainbat prozesuetan erabiltzen duten **ura berrerabiltzen dute.**

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, erosketa-jardunbide egokiak sustatuz eta horrela, ontzi-hondakin gutxiago sortzeko: erosketa-ontzi berrerabilgarriak, soltean erosteko moduak, plastikozko poltsak kentzea, etab.
- Elikagaien burujabetza eta kontsumo eredu jasangarriago bat bultzatzeko Baratzak bultzatzea: Herri-baratzak prestatzea.

-
- Km produktuen kontsumoa bultzatzea (herrian eta herritarrentzat)
 - Ekoizpen ekologikoa bultzatzeko konpromezua hartzea.
 - Biziola bezalako proiektuak babestea.
 - Hondakinen sorrera murrizteko sentsibilizazio kanpainak ahalbidetzea, batez ere plastikozko bildukinen kontsumoari begira.
 - Hondakinen kudeaketa jasangarrirako eta hondakinen sorrera murrizpenean oinarrituta, sorkuntzaren araberako ordainketarako bidea egiten hasia sektore guztietan.
 - Udalaren erosketa eta kontratazioetan jasangarritasun-irizpideak sartzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sartzea barne: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.



13. GJH klima aldaketa eta bere ondorioak ezagutu, aurreikusi eta hauen aurreko neurriak hartzean datza, bai berotegi-efektuko gasen isurketak murriztuz, baita lurraldea klima-aldaketara egokituz ere.

AZTERGAIK

- ❖ Berotegi Efectuko Gasen isuriak
- ❖ Klima aldaketak udalerrian duten eragina eta honen egokitzapena klima aldaketaren aurrean.

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Ez dago jarduera zehatzik arlo honi dagokionean.

HERRIAREN EGOERA

Momentuz ez dira udalerriko eta udalaren berotegi-efektuko gasen isuriak (BEG) kalkulatu. Udalarenak diren instalazio eta eraikinen monitorizazio sistemaren ezarpenak laster emango ditu Udalaren BEG isurien datuak eta hauen gaineko jarraipena egin ahal izango da.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Klima aldaketara egokitzen** hasi beharko ginateke: etxebizitzak,...

LEHENTASUNEN JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Berotegi efektuko gasen isurien urtez urteko jarraipena egitea (sektoreka).
- Klima aldaketa zeharkako moduan lantzea udalean eta egiten diren proiektuetan aldagaia hau txertatzea.
- Klima aldaketari aurre egiteko herritarren inplikazioa lortzea, horretarako sentsibilizazio eta informazio kanpainak abian jarri. Ekintza edo ohitura aldaketak bultzatu: energia kontsumoaren murrizpenean, mugikortasun ohituren aldaketa,...

-
- Klima aldaketak Idiazabalen izan ditzakeen ondorioen azterketa egitea eta hauei egokitzeko erresilientzia estrategiak lantzea.



15. GJH-k lehorreko biodibertsitatearen galera ekidin nahi du, horretarako ekosistemetako bizitza babestu, lehengoratu eta modu jasangarrian erabiltzea sustatuz.

AZTERGAIAK

- ❖ Lehorreko eta ur gezetako ekosistema balioak eta hauen kudeaketa
- ❖ Eremu lehorrean eragina duten faktoreak: lurzoru kutsatu edo degradatuak, espezie exotiko inbaditzaileak
- ❖ Hiri biodibertsitatea
- ❖ Naturaren ezagutza eta herritarren sentsibilizazioa

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udalak Hirigintzako Plan Orokorraren baitan zehazten ditu lurzoru urbanizaezinaren baitan natur ondareari dagozkion eremuan eta zehazki babes figurak.

Udalak landa-natur eremuan duen eskuhartzea ez da handia, azaleraren gehiengoa pribatuen eskuetan bait dago. Azken urtean bi lursailen erosketa egin du hauek larretarako erabili daitezen (artzantzarako batez ere).

Antolatu diren jardueren artean esanguratsuena: "Bestelako basogintza" hitzaldia. Honek interes handia piztu du.

HERRIAREN EGOERA

Fauna intereseko eremuak

Idiazabalgo udal-mugaratean badago bertan intereseko fauna komunitate bat bizi delako zaindu eta babestu beharreko eremu bat; izan ere, eremuaren barruko zona batzuk fauna komunitate horren erreproduktzioarako edo beste aspektu biologiko batzuetarako (bizitzeko edo migratzeko, adibidez) garrantzitsuak dira.

Eremu hori espezifikoki lotuta dago Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan jasota dagoen animalia espezie bati, eta onetsitako kudeaketa plana du. Zehazki, bisoi europarra (Mustela Lutreola) da espezie hori. Babes kategoriarik altuenean dago sailkatuta aipatutako katalogo horretan, “desagertzeko arriskuan” kategorian, alegia.

Espezie horren kudeaketa plana 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bitartez onetsi zen. Plan horrek ezarri zuen Idiazabalgo udal-mugartean dagoen espezie horrentzako interes bereziko eremua Oria ibaiarekin bat datorrela, zehazki, Urtsuaran ibaiarekiko elkargunearen eta Segura eta Mutiloa udal-mugarteekiko mugen arteko tartean.

Eremu edo espazio lineala da, 2 km inguru luze dituen. Bidezkoa da eremu hori baldintza egokietan mantentzea eta zaintzea, aipatutako espezie horren babes bermatzeko lehentasunezko xedea dela medio.

Definitutako eremu horiek beren baldintza propioak dituzten beste esparru babestu batzuei gainjarritako eremu espaziala osatzen dute (besteak beste, Oria Garaiko KBE).

Honela, Babes bereziko figura batez babestuta dagoen udalerriko azalera %61 hartzen du.

Natur intereseko landaredia duten eremuak

Idiazabalgo udal-mugartean badaude beren landaredien natur interesetatik duten balioa babesteko eta zaintzeko neurriak hartzea justifikatzen duten hainbat habitat, are gehiago habitatak progresiboki narriatuz eta haien azalera murriztuz joan direnean. Udalerriko natur eta kultura ondare hori babestea faktore positibo bat ere bada, oro har, ingurumena kontserbatzeko, zaintzeko eta hobetzeko, eta, zehazki, biodibertsitatea babesteko.

Jarrian datozenak dira identifikatu eta gainjarritako baldintza horretan jasotako landaredi unitateak:

- Ibaiertzeko toki landaredia: tamaina txikiagoa edo handiagoa duten eraketak dira, eta haltz eta lizarrak dira nagusi.
- Toki baso eta zuhaitziak: kantauriar haltzadiak, urkidiak, harizti azidofiloak, pagadi azidofiloak, pagadi-hariztiak, hostozabalen eta motzondoan baso mistoak.
- Europar Batasunaren interesekoak diren habitat naturalak: habitat horiek babesteko, kontserbazio bereziko eremuak ezarri behar dira, eta Europako Habitat Zuzentarauaren (92/43/EB) I. eranskinean jaso
- Zehazki, “Lizarrustiko basoa (pagadia)”, Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian dago jasota, Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema ezberdinen lagin esanguratsua baitago bertan.

Onura publikoko mendia

Onura publikoko mendien artean gehitu da kategoria horri dagokion udalerriko eremua, 108/1995 Foru Dekretuak, azaroaren 21ekoak, Gipuzkoako Onura Publikoko Mendien Katalogoa onesten duenak, ezarritakoaren arabera. (1995-12-04ko GAO, 230. zk.).

Igarobide ekologikoen sarea

Igarobide Sarearen xede nagusia da Natura 2000 Sarearen konexioa eta koherentzia ekologikoa sustatzea, Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora Zaintzeari buruzko Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren 10. artikulua ezarritakoarekin bat eginez.

Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitatea Sailak 2005ean Igarobide Ekologikoen Sareari buruzko azterlan bat egin zuen EAEn. Oraindik izapidetu eta onetsi gabe dagoen arren, justifikatuta dago azterlan hori gainjarritako baldintza hauek egiteko erreferentzia gisa erabiltzea.

Aipatutako ikerketa horren arabera, Idiazabalgo udal-mugartearen hegoaldea Aralar eta Aizkorri mendilerroen espazio-nukleoaren arteko lotura igarobidearen parte da.

Egiturazko xedea da lotura igarobide horrek konektagarritasun ekologikoko baldintzak mantentzea, eta, beraz, igarobide horren gainean esku hartzeko irizpideak eraginak prebenitzera eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta ehiza aprobetxamenduetako landaredi elementu naturalak kontserbatzera eta, hala badagokio, berrezartzera bideratuta daude.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRITARREN EKARPENAK

- **Lehen sektorearen beherakadak eremu ez urbanizagarriaren kudeaketa kolokan jartzen du.** Baserritarrek kudeatu izan dituzten larre eta belazak sasiak hartzen ari dira. Idiazabal izaera landatarrari guztiz loturik egonik, mingarria da egoera hau. Hala ere, zelai hoberenak oraindik mantentzen dira.
- **Naturarekiko lotura galtzen ari da eta heziketatik lan handia dago egiteko, beharrezkoa da transmisioa.** Baserrietan ere ez da bertan lan egitea bultzatu, kontrakoa baizik. **Orain arte baserri bakoitzak gutxienez bere baratza zuen, baina hau ere galtzen joan da. Beste balore batzuk sustatu behar dira.**
- **Partzoneriko lurrak ez dira ezagutzen ez balioan jartzen.** Lur sail hauek ezagutarazi beharko lirateke. Pagadi ederrak daude bertan.
- **Herri onurako mendirako kudeaketa plan bat egitea beharrezkoa da.** Hausnarketa bat beharrezkoa da baso eta larreekin zer egin. Eremu publikoaren azalera handia da eta gainera baso jabeen gaur egungo joera saltzea da, ez bait dakite zer egin beraien basoetan.

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Herri onurako mendi lurren kudeaketa plana egitea.
- Naturaren kontserbazio ikuspegitik interesgarriak diren lursailen erosketa eta lursail hauek kudeaketa egokia egitea.
- Onura publikokoak diren herriko lursailak balioan jarri eta gizarteratzea.
- Basogintza jasangarria bultzatu: bertako zuhaitzen landaketa, etab. (hauek ur eskari baxuagoa dute koniferen aurrean)
- Idiazabalgo natur balioak (ekosistema lurtar eta urtarrak) babestea eta balioan jartzea.
- Errekaren leheneratzea ahal den heinean bideratzea.
- Erreka-kaleak garbitzeko auzolana bultzatzea.

2.3. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZAREN ARLOA



16. GJH honetan bizikidetzaren, herritarren segurtasuna eta bakearekin lotutako alderdiak hobetzea da helburua, baita udalaren kontu ematea eta gardentasuna ere.

AZTERGAIK

- ❖ Bizikidetzaren eta segurtasuna
- ❖ Partaidetza, gardentasuna eta kontu ematea
- ❖ Elkartegintza

UDAL PLANGINTZA

Aztergai hauei loturiko udal mailako plangintza hau da:

- **Tokiko Agenda 21eko ekintza plana (2005, Goieki)**
- **Udal komunikazio plana**
- **Gaztelekuko parte-hartze prozesua (2022)**
- **Idiazabalgo hiri-trafikoa arautzen duen ordenantzen gaineko partaidetza prozesua (2022)**

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udalak gardentasunerako atari bat du udal web gunean.

Komunikazioaren eta intereseko gaiak partekatzeko bideak hobetu dira Udaletik: udal aldizkaria, sare sozialak, whatsapp zerbitzua eta 010 udalaren telefono zuzena izateko baimena lortu du.

Udal langileei zuzendutako jardunaldia A2030ari buruz.

Herritarren tramitazioak errazteko interoperabilitate hitzarmenak egin ditu (NISAE, DGT), Zerbitzu telematikoen eskaintza zabaltzeko eta Baqk -ren promozioa egin du.

Adinekoentzako mugikorra erabiltzeko ikastaroa antolatu da.

Herritarren partaidetza sustatzeari begira: batzorde irekietan parte hartzeko deialdia irekiak egiten ditu eta gai ezberdinen inguruan hainbat partehartze saio antolatu ditu: kale nagusia

asteburutan ixteari buruzko parte hartze prozesua; Idiazabal denontzat mugikortasunari buruzko parte hartze prozesua; Landa eremuko auzotarrekin parte hartze prozesua; Gaztelekuko parte hartze prozesua; Eskola Agenda2030 urteroko audientzia udalean; Berdintasun diagnostikorako parte hartze prozesua;...

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Ingurumen-klausulak jasotzen dituzten lizitazioei buruzko informazioa jaso nahi da.

HERRITARREN EKARPENAK

- **Gai ezberdinei heldu eta elkarlanean lantzeko gune bat** faltan botatzen da (jarraipen talde bat, auzolana,...). Landu nahi diren eta Udalari eskatu nahi zaizkion gaiek aurrera egin dezaten, eskaera bateratu bat egin beharko litzaioke, herritarrez osatutako talde batetik indarra egiteko eta ez bakoitzak bere interesetatik eginiko eskaeren bitartez.
- **Auzolana galdu da erabat** eta Udaletxetik bultzatzen diren ekimenak ez dute askotan herritarren babesa izaten, duten artifizialtasunagatik, ez dira eta herriarengatik sortutako ekimenak izaten. Antolatzen diren ekimenetan partehartzea geroz eta baxuagoa da eta hau arazo bihurtzen ari da.
- **Elkarteetan sortzen den lana aurrera eramateko bolondres falta** dago, ez dago erreleborik (Illati, Axari dantza taldea,...). Ekimen kulturalak kontsumitzeko prest dago herritarra, antolatze lanetarako ez hainbeste.
- Ekimenen antolaketa “profesionalizatu” da. **Lehen herritarrak ibiltzen ziren antolaketa lanetan eta orain Udalak betetzen du funtzio hau.** Herritarrak jarrera eroso bat hartu du eta ekintzaile papera galtzen joan da. Kultura batzordean ere geroz eta herritar gutxiagok parte hartzen du. Udalaren papera koordinatzea eta baliabideak eskaintzea izan beharko litzateke, ez antolatzailearena.
- Udalak **dirulaguntza lerro bat ateratzen du urtero herritarrek ekimenak antolatu** ditzaten eta aurten hutsik geratu da. Agian komunikazioan hobetu beharra dago.
- **Gazteak ez daude geldi ete behar berri bat sortzen denean aktibatzen dira** (adib: talde feministaren sorrera, ikasteko ikasgela baten prestaketa)
- Elkarateak mantentzeagatik mantentzea ez da irtenbidea, behararen arabera **hasi eta amaitzen diren proiektuka lan egiteak funtzionatzen du** gaur egun.
- Ekimenen antolaketa (arloan anitzak) eta herritarren auzolana ezinbestekoak dira bizia duen herri baterako.
- Ekimenen antolaketarako **gune estali finko baten beharra** dago hainbat jarduera eremu bilduko dituen: skate parkea, haur jolasak,...). Ez da nahikoa kioskoa edo/eta COVID garaian plazan jarritako estalpea.
- **Asteburuetan giroa sortu** behar da. Hala ere orain dela urte batzuk baino hobeto daude. Ostiralean giroa egoten da, ez ordea larunbat eta igandeetan.
- **Mesfidantza dago erakundeek martxan jartzen dituzten plangintza estrategiko hauekiko.** Orain arte egin denaz gain badago gehiago egiterik?. Prozesu oso burokratikoak izaten dira.

Helburuekin (GJH) denak ados egongo ginateke gizarte bezala, baina benetan zerbait lortuko da hobetzea, orain arte lortu ez bada?

- Bizikidetzarekin lotuta, **gizarte-hezkuntza, besteekiko enpatia,... galtzen** ari direla azpimarratu da, balio zibikoetan atzera egiten ari dela.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Proiektu zehatzen baitan auzolana bideratzea, pixkanaka herritar aktibo eta partehartzaile gehiago lortzeko helburuarekin.
- Helburu desberdinak lortzeko eta elkarbizitzarako/inklusio eremuak sortzeko herritar-eragileak elkartzeko bilguneak sortzea.



17. GJH honekin beste sare batzuekin elkarlana eta elkartasun jarduera sustatu nahi da; hau da, nazioarteko lankidetzarako ekintzak bultzatu eta truke kulturala, kooperatibo eta solidarioa sustatzea.

AZTERGAIK

- ❖ Lankidetzarako aurrekontua
- ❖ Lankidetzeta eta garapenerako proiektuen sustapena
- ❖ Garapen Jasangarriarekin loturiko aliantzak eta sareetan partehartzea

UDAL PLANGINTZA

Ez dago plangintza zehatzik arlo honi dagokionean.

UDAL JARDUERA (ZERBITZU, BALIABIDEAK ETA EKIMENA)

Udalak garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzeta sustatzen du Gobernu Kanpoko Erakunde bidez eta hauei bideraturiko urteroko diru-laguntza lerroarekin. Iparra-Hegoa harremanak eraldatzeko asmotan, udalak aurrekontuaren zati nabarmena ematen die aipatu elkarteek gauzatzen dituzten hainbat alorretako proiektuei. Era berean, larrialdi humanitarioetarako ekarpenak egiten ditu gobernu.

Garapen bideko herrirentzako dirulaguntza lerroak zabalik jarraitzen du. Lehen eskaera egiten zuten eragile batzuk eskatzeari utzi diote, arazo burokratiko handiak sortzen direlako justifikatzeko garaian.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRIAREN EGOERA

Herrian bada ONG bat, Kasongo Lunda, Kongon bizi den Idiazabaldar baten bueltan sortutakoa da.

Azken urteko proiektu hauek lagundu izan dira:

- Kongo: Lutondo ganadogintza proiektua.
- Etiopia: Afrikarekin elkartasun proiektu solidarioa Etiopia
- Venezuela: Benpostako eskola konpontzea, egokitzea eta hornitzea
- Tigray/Etiopia: Hilerokoaren inguruko jarraipide osasuntsuak mantentzeko heziketa saioak.

Bestalde aliantzei dagokionean, Idiazabalgo Udala, Udalsarea 2030, udalerrri jasangarrien euskal sarearen kide da.

Iturria: Idiazabalgo Udala

HERRITARREN EKARPENAK

- Erakunde publiko zein pribatuen arteko itunak eta udalerrri barruko eragile edo talde ezberdinen saretzea behar beharrezkoa da proiektuak aurrera ateratzeko.

LEHENTASUNEKO JARDUERA EDO LAN-ILDOAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo nagusiak identifikatzen dira:

- Izateko eta pentsaera ezberdinak dituztenen arteko itunak- sareak sustatzea helburu guztiak lortzeko.
- Herria saretzea eta udalerriaz gaindiko eragile publiko zein pribatuekin elkarlanerako bideak irekitzea.
- Garapenerako Lankidetzaren baitan lanean jarraitzea, %0,7ko ekarpenetik haratago.